

Goienkaria

2010eko maiatzaren 14a > Egubakoitza > X. urtea > 421. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE

www.goiena.net

TOKIKOM

"Azpiegitura handiak, bitartekoak baino gehiago, ekonomiarako helburuak dira"

Juan Lopez de Uralde
Greenpeace Espainako zuzendaria > 09



G2a

Birziklatutako arropa ikusgai Eskoriatzan > 29

BERGARA

Eduegi baserriaren babes-araudia aldatu nahi du Jauriaritzak > 16

ESKORIATZA

Aranburuzabala kaleko lanak dagoeneko bukatu dituzte > 24

ANTZUOLA

Bihar artisauak eta ganadua protagonista San Isidro ferian > 25



JUAN KRUZ MENDIZABAL > PASTORALTZAKO BIKARIOA

"Zuen artean lortu dut zorientsu izatea" > 05

ARRASTOA Horixe utzi du Juan Kruz Mendizabal *Kakux*-ek Bergaran, Antzuola eta Elosun. Irudian Arrasaten, GOITBko platotik irten berri.

ENEKO AZKARATE

TELEBISTA > GOITB

Lurreko Telebista Digitalean dago GOITB Debagoien osoan

ARAMAIO Egunotan bukatu dute trantsizioa, geratzen zen herrian, Aramaion, beharrezko instalazioak ipinita

IKUSLEAK Orain, GOITBk ikus-entzuleen 'feedback'-a behar du beste lanen bat egin behar ote duen jakiteko

KABLEA Trantsizio horrek ez die inola eragin telebista Euskaltelen zuntz optiko bidez ikusten dutenei > 02-03

KIROLA > AUTO LASTERKETA

Gorlako auto igoera bihar

Joan den asteko Udanako igoerari Gorlakoak hartuko dio erreleboa bihar, zapatua (15:00). Guztira 50 bat pilotuk hartuko dute esku proban, tartean Debagoieneko hamarrak. > 28

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28
Kultura > 30-31
Gazteak > 58
Sailkatuak > 59
Telebista-Irratia > 60
Berri-zakua > 61
Eskelak > 61
Non-zer > 62-63

Bergarako jaien gehigarria

GOIENKARIArekin batera Mendekoste jaien gaineko orrialde bereziak, barrualdean.



JENDARTEA > EUSKAL PRESOK

Jon Agirreren aldeko manifestazioa

Zapatuan izango da, Aramaion. Agirrek gaixotasun larriak ditu eta asteon 29 urte bete ditu espetxean > 04

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
ONATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

TELEBISTA > GOITB

Goiena Telebista formatu digitalean dago bailara osoan

ARAMAIO Joan den martitzenean ipini zituzten Aramaioko instalazioak, Gureian; hori zen geratzen zen Debagoieneko herri bakarra

PROBAK Orain, seinalea leku guztietara ailegatzen den probatzen dabil Goiena; horretarako, ikusleen laguntza ezinbestekoa da

KONTAKTUA GOITBren seinalea jaso ezin dutenek hiru kontaktu bide dituzte: 943 25 05 05, 'goitb@goiena.com' eta 'goiena.net' ataria

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Bere emisioa formatu digitalera pasatzeko, jauzi eta jauzi ibili da Goiena Telebista: lehenengo, Leintz bailara osoan egin zuen jauzia, digitalera trantsizioa; gero, Bergaran eta Oñatin; Elgetan segidan, eta handik, Antzuolara; eta orain, zirkuitua itxi da, bukatu da trantsizioa, Aramaion ere eguaztena ezkerre ikusten delako GOITB Lurreko Telebista Digitalean, Gureian egin zituz-

ten instalazio lanak eta gero. Kasu guztietan, kate berean sintonizatzen da: 52. katean, hain zuzen ere.

Orain, proba fasea hasi da: egiaztatu egin nahi du Goienak telebistaren seinalea herri guztietara ailegatzen dela. Zeregin horretan, Goiena Telebistak berak ere herritarren laguntza eskatzen du: hain zuzen ere, jakiteko non ez den seinalea jasotzen. Lehenengo seinale analogikoare-

kin ez bezala, seinalea digitala ez da erdipurdi ikusten; jasotzen da edo ez. Hala ere, kasu batzuetan, seinalea uneka "apurtu" egiten da, edo, tarteka, beste kate batzuen seinalea gainjartzen zaio. Kasu horietan ere, GOITBk eskertzen du jakinaraztea.

Hiru kontaktu modu daude: 943 25 05 05 telefonora deituta, goitb@goiena.com helbidera mezua bidalita, edo Interneteko goiena.net atarian. Hor klikatze-

ko banner bat dago, eta formulario bat agertzen da. Hor nork bere datuak emanez gero, Goiena harremanetan jarriko da. Ikeritu beharko da kasu bakoitzean zergatik ez den ikusten.


Herritarrek badabilta dagoeneko laguntza hori ematen, eta Goienak eskertu egiten du. Hala, ikus-entzule batzuei esker detektatu zen deskodetzaila marka jakin batek ez zuela uzten 52. katea sintonizatzen, eta, horretan probatuz gero, gainerako kateekin ere arazoak ematen zituela. Kolaborazio horri esker, Goienak lortu du deskodetzaila horiek merkatutik kentzea.

GOITB sintonizatu ezinik dabiltzanek, eta auzoko edo etxebizitza blokeko arazoa ez dela egiaztatu badute, telebista edo etxetresna elektrikoetako teknikari bati eska diezaiokete laguntza.

LAU HILABETEAN

Gauzak agudo joan dira Goiena Telebistaren seinalea hedatzeko; ez Goienak gura adina agudo, baina hala ere, Eusko Jaurlaritzarekin frekuentziaren esleipenari zegokion kontratua –iazko azaroan– sinatu zuenean hasi zen 18 hilabeteko epearen barruan. GOITBko programazio arduradun Oihane Agirrek hau xe diosku: "Debagoienean, urtarrean itzali zen gainerako telebisten seinale analogikoa, eta oraintxe bukatu dugu guk trantsizioa. Kontuan izan behar da gure demarkazioan, berez, ez direla sartzen Antzuola, Aramaio, Elgeta eta Leintz Gatzaga, baina herri horietara ere eraman dugu seinalea; baina horrek burokrazia lana handitzea ekarri du".

Lehenengo jauzia Leintz bailaran egin zuten: Muru gainean, instalazio nagusiak dauden lekuan, bailarako herri guztien seinalea hortxe sortzen da-eta. Hori otsail bukaeran egin zuen Goienak. Hala, seinalea Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagan zabaldu zen. Handik hilabete ingurura, bes-



Bergarako San Miguelen instalazioa egiten.



GOITBren errealizazio gela. GOITBk aspalditik erabili

¡GUZTION ARTEAN LORTU DUGU!

100
PARTIDA

ACB

LAGUN ARO
SAN SEBASTIAN
PIPIZLOI BASKET

LAGUN ARO GBC
A.A. FUENLABRADA

ZUREKIN OSPATU NAHI DUGU
www.gipuzkoabasket.com

LAGUN ARO MAIATZAK 15
19:00h.

te bi jauzi egin zituen: bat Bergaran, San Miguelen, eta bestea Oñatin, Belarren. Horiek biak edozein ordenatan egin zitzaketen, elkarren independentiak direlako bi herrietako seinaleak. Baina Bergarako instalazioa ezinbestekoa zen seinalea Elgetara hedatzeko, eta Elgetako azpiegiturak apirileko hirugarren astean egin zituen. Handik, seinalea Antzuolara bideratu zuten, hurrengo astean. Azkenik, Aramaiokoa joan den eguaztenean egin zuten.

Prozesu osoan, Itelazpi enpresa publikoarekin batera egin du lan Goienak. Itelazpi Eusko Jaurlaritzak sortutako enpresa bat da, eta bere eginkizunetako bat da telebista ante-

DATUA

6

ANTENA

Sei antena edo errepikagailu behar dira GOITB bailara osoan hedatzeko. Murun dago nagusia, eta handik zabaltzen da besteetara.



GOIENA TELEBISTA



Aramaioko antenak, oraingo astean jarritakoak. GOIENA TELEBISTA



GOIENA TELEBISTA

zuen teknologia digitala bere ekoizpenean, eta orain, emisioan ere bai.

nak eta azpiegiturak ipintzen laguntzea eta emisio-dorreak kontrolatzea.

Instalazio lanei dagokienez, Diratel eta Milar Elkoroko instalatzaileek egin dute lan Goienarekin.

EUSKALTEL, LEHEN BEZALA

Euskaltelen zuntz optikoa, kablea, oso zabaldua dago Debagoienean; zuntza instalatuta dagoen herrietan –ibarreko guztiak, Antzuola, Elgeta, Leintz Gatzaga eta Aramaio izan ezik–

oso sartuta dago: etxeen %55ek dute kontratatuta zerbitzu hori. Oñatin, kopurua handiagoa da: hamar etxebizitzatik zazpik, gutxi gorabehera, Euskaltelen kable zerbitzua daukate. Hala, Euskaltelen deskodetzailearen bidez ikusten dutenei telebista ez die eragin itzalaldi analogikoak ez eta Lurreko Telebista Digitalera jauziak.

GOITB Euskaltelek eskaintzen duen oinarrizko telebista paketea dago Debagoienean. Bestalde, Euskaltelen eskaintza-

rekin, bailaran ez ezik, Euskal Autonomia Erkidego osoan ikus daiteke GOITB.

ESKORIATZAN ERE LASTER

Oro har, lan handia, eta garestia izan da Goiena Telebistarendako Lurreko Telebista Digitalera trantsizioa egitea. Gutxi gorabehera, 80.000 euro kostatu da azpiegitura sarea osatzea bailarako tontor eta herrietan; baina ezinbesteko pausoa izan da, eta Goiena Telebistak kalitatean asko irabazi du.

LABUR

Bederatzi herri, lau hilabeteen estalita

Etxeko lanak agudo egin ditu Goiena Telebistak bere seinalea Lurreko Telebista Digitalera egokitzeko.

2009ko azaroan sinatu zuen Goienak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena, eta, horren bidez, 52. katearen esleipena ofizialdu egin zen. Urtarrilean egin zen telebista kate gehien itzalaldi analogikoa Debagoienean, eta handik hilabetera, otsail bukaera aldean, eman zuen GOITBk lehenengo pauso garrantzitsua: bere seinalea hedatzeko gako den Muru gainean antena ipini zuen. Horren bidez, otsaila ezkerre Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta

Leintz Gatzagan zabaldu zen bere seinalea digitala, lurrez; eta gainerako herrietara ere handik zabaltzen zen, zeharka.

BI HERRI BATERA

Martxoan beste bi herri handietan egokitu zuen GOITBk bere seinalea: Bergaran (San Miguel mendian instalazioa eginda) eta Oñatin (Belarren). Bi horiek Murutik hartzen dute seinalea.

Apirilean, lehenengo Elgetan ipini zuten errepikagailua eta handik Antzuolara ere bideratu zen seinalea.

Azkenik, oraingo astean Aramaioa eraman dute GOITB.

ZER EGIN GOITB EZIN BADUT IKUSI?

> **SINTONIZATU** Norberak saiatu behar du GOITBren seinalea topatzen. 52. katean dago. Ez bada asmatzen, teknikari bati laguntza eskatu.

jartzeko: 943 25 05 05 telefonoa, goitb@goiena.com posta elektronikoa eta goiena.net ataria.

> **GOITB-RA JO** Edozelan ere, ez bada ikusten, hiru modu daude GOITBekin harremanetan

> **ZEHAZTU** Afektatuarekin batera Goienak arazoa zein den zehaztu du. Batzuetan, Udalaren, auzoko arduradunen... esku egongo da konponbidea ipintzea.

Euskal erakundeek ere sentsibilitatea eta aldeko jarrera erakutsi dute LTDrekiko: hala, Eusko Legebiltzarrak tokiko telebistek laguntzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, hiru konpromisoren bidez: tokiko telebistekin akordioak eginez, laguntza teknikoa eta finantzarioa emateko; gero, gutxienezko baldintza teknikoak emanez telebistoi; eta, azkenik, administrazioari eta emisioari dagozkion betebeharreko guztiak gainbegiratzea eta ziurtatzea. Bestalde, dirulaguntza eskaera ere egin die Goienak erakundeei, eta erantzunaren zain dago.

Orain, GOITBren seinalea digitalak bailara ia osorik hartzen du. Izan ere, Goiena ziurtatu da seinalea Debagoieneko herri guztietan hedatzen dela eta berau hartzeko modua dagoela.

Oraindik GOITB ikusterik ez dagoen leku batzuk badaude, itzalgune batzuk, alegia, bailarako orografia dela-eta; hori da, adibidez, Oñatiko Zubillaga eta Arrasateko Gesalibar auzoen kasua. Horietan, dagokien arduradunek hartu beharko dituzte behar diren neurriak, GOITB Lurreko Telebista Digital eran

ikusi gura badute. Gesalibarren, esate baterako, auzotarrak hasi dira beharrezko egokitzapenak egiten.

Kasu berezia da Eskoriatzarena. Han ere arazoak dituzte GOITBren seinalea jasotzeko, herrian telebista, orokorrean, jasotzeko duten sistemarengatik. Murutik jasotzen dute seinalea. Baina, kasu horretan ere, Udalak ia gertu dauka konponbidea, eta hala, Teleskoko arduradunen esanetan, datorren astean hasiko dira behar den aparailu bat instalatzen. Aurrekontua onartuta dago, eta oraingo astean zen agertzekoa Gipuzkoako Agerkari Ofizialean.

KALITATE HANDIA

Hego Euskal Herrian eta Espainian, DVB-T (Digital Video Broadcasting-Terrestrial) modulazioa erabiltzen da LTDA emititzeko. Horrek seinalea sendoa eta babestua bidaltzen du. Teknologia digitalak ematen dituen abantaila batzuk dira soinu eta irudi kalitate handia, eta analogikoak ematen zuen baino espazio handiagoa kate gehiago sartzeko.



"Entzumen kalitateak bizi kalitatea dakar"

Entzumen Kalitatea Hobetzeko Plana jarri du martxan **GAES**ek.
Plan honi esker honako abantailak izango dituzu:

- 1 Entzumenari buruzko aholkularitza **DOAN**
- 2 Ordainketa erraztasunak entzumen-laguntzetarako
- 3 Opari bat, etortze hutsagatik



Entzumen Kalitatea Hobetzeko Plana

Zurradero, 10
Tel.: 943 76 94 55
BERGARA

Otalora Lizentziatua, 18
Tel.: 943 71 27 93
ARRASATE



GAES
Entzumen Zentroak

Maiazaren
31ra
arte



Jon Agirrerren egoera salatzeke eta manifestaziorako dei egiteko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean.

GOIENKARIA

POLITIKA > MOBILIZAZIOAK

Jon Agirrerren egoera salatzeke manifestazioa

Aramaioko plazan egingo dute manifestazioa bihar, zapatua, arratsaldeko seietan

MIREIA BIKUÑA > ARAMAIO

Jon Agirre preso aramaioarraren egoera salatzeke manifestazioa egingo dute bihar Aramaion. 18:00etan batuko dira, plazan.

Manifestaziorako deialdia egiteko eta Agirrerren egoeraren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean.

2011KO MAIATZAREN 3RA ARTE

Agerraldian emandako datuen arabera, 30 urterako zigortu zuten Agirre eta 1996an bete zituen zigorraren 3/4ak eta 2006ko urrian aske utziko zutela jakinarazi zioten. Hala ere, urte bereko irailean, Auzitegi Nazionaleko doktrina berria

indarrean sartu (Parot doktrina) eta, hori horrela, 2011ko maiatzaren 3ra arte luzatu zioten kartzela zigorra, 30 urteak osotasunean bete eragiteko. Gainera, Agirre gaixotasun larriak dituzten presoer zerrendan sartuta dagoela gogorarazi zuten.

Bestalde, egungo espetxe politika "salatu" zuten. Sakabaketa eta bizi osorako zigorrak "amaitzea" eta euskal preso politikoak "askatzea" eskatu zuten.

MUNDUMIRA > OHARRA

Mundumirako bisitariei autobusak erabiltzeko gomendioa eman die Udalak

Debagoieneko herri guztietan autobus zerbitzu bereziak jarriko dituzte Antzuolaraino heltzeko

M.B. > ANTZUOLA

Maiatzaren 29an eta 30ean Antzuolan ospatuko duten Mundumirara joan gura duten bisitariendako aholkuak ematen dihardu Udalak. Azkena autobusak erabiltzearen gainera da. "20.000 lagun espero ditugu, eta herrian ez dago guztien autoendako tokirik. Hor-taz, zerbitzu publikoa erabiltzeko gomendioa zabaldu gura dugu", esan digu Antzuolako alkate Pedro Iturbek.

Horren harira, lanean dihardute Pesarekin autobus zerbitzua indartzeko. Debagoienarrek eta kanpotik datozenek aukera izango dute autobusez Antzuolara heltzeko. Alde batetik, Eskoriatzan hasi eta herririk herri geldialdiak eginez Bergararaino helduko den

linea eta, Eskoriatzan hasita, herririk herri ibili ondoren Antzuolaraino helduko den linea bereziak jarriko dituzte. Beste alde batetik, Oñati-Legazpi-Zumarraga-Urretxu-Bergara ibilbidea egingo duen autobus zirkularra etengabe ibiliko da. Azkenik, Bergaratik eta Zumarragatik autobus bereziak jarriko dituzte. Autobusak ordu laurdeneroko maiztasunez ibiliko dira.

GARAIZ IBILTZEKO AHOHKUA

Autobusa erabili arren ordu zehatz batzuetan geltokiak kolapsatu egin daitezkeela kontuan hartuta, joan-etorria modu progresiboan egitea eskatu du te. "Ekitaldi zehatz batera joan nahi badugu, batez ere ekitaldi nagusietako bat bada, garaiz joatea eskertuko genuke, bestela Antzuolako sarrera-irteeretan segurtasun arazoak eduki ditzakegu-eta. Ahal dugun neurrian pilaketak ekidin behar ditugu", esan digu alkateak.

Kanpotik datozen autoak uzteko aparkalekuak egokitu dituzte Urretxuko Mugitegi industrialdean eta Bergarako Labegaraian.



Presta zaitez udarako




Anes

Arrasate

Olarte 6
943 77 10 16

Oinetako eta poltsak



Belar Meta

Aretxabaleta

Durana kalea 20
943 53 27 39

Gazteentzako moda



Markeliñe

Bergara

Herrilagunak 6
943 76 05 24Umeendako arropak
Otik 16 urtera

Tipi -Tapa

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 21
943 79 67 78

Oinetako eta abar



Juan Kruz Mendizabal, martitzenean, Arrasaten.

ENEKO AZKARATE

Juan Kruz Mendizabal 'Kakux' > Gipuzkoako Pastoraltzako bikarioa

"Debagoienez zeuen artean lortu dut zoriontsu izatea gauza apalenekin"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Arrastoa utzi du Juan Kruz Mendizabal *Kakux*-ek Bergaran, Antzuolan eta Elosun. Munilla gotzainak Pastoraltzako bikario izendatu berri, hemengo parroko izateari lagako dio udan.

Zein izango da zure egiteko nagusia aurrerantzean?

Gipuzkoako Elizaren, parrokiaren eta pastoraltzaren berri ematea gotzainari eta gotzainaren eta gure herrietako parrokiaren artean zubi egitea. Gure elizbarrutiko *Willy Fogg* izango naiz. Bestetik, Gipuzkoako Elizaren egoera berezia dela-eta, gotzain berriaren izendapenagatik, zubi-lana egingo dut batzuekin eta besteekin.

Ustekabeen hartu duzu izendapena?

Bai, ez nuen inolaz ere espero. Besteak beste, sinatu nuela gotzain berriaren izendapenaren aurkako eskutitza.

Kritiko izan zinen Munillaren izendapenarekin. Zergatik?

Gure Elizak dituen kontseiluak erabaki horietan parte hartze estuagoa izan beharko lukeela uste dut. Bestetik, buruan geneukan gotzainaren profilari dagokionez, ez genuen ikusten gotzain hau.

Aurreiritziak aldatu egin dira?

Ezagutze prozesuan gaude. Gotzainak esaten du aurreiritziak gaintzeko modurik onena dela geure arteko elkarrizketa. Ezinbestekoa da. Euskarazkoak dira gure arteko harremanak.

Zelan hartu dituzte izendapenok Gipuzkoako gainerako apaizek?

Bi jarrera agertu dizkirate: batzuek pentsatu dute hasieran hartutako xedeari traizio moduko bat egin diedala. Ikuspegi motza da hori. Bestetik, apaiz eta herriar gehienek eskerrak ematen dizkirate. Pastoraltzako bikario lanak norbaitek egin behar zituen, eta, nire izendapenarekin, zelanbait, egoera bideratu egin dela ikusi dute.

Gaszte jendea dagoen tokietara, lokaletara-eta, hurbildu zara, baina gazteak ez dira hurbiltzen Elizara. Zergatik?

Elizak, neurri baten, gazteak uxatu egiten dituelako, aldarrikatzen duen mezua ez dagoelako freskatuta. Gure exijentzia da diskurtsoa berritzea. Elizaren mezuak ez dira erakargarriak. Mundua hobetzeko exijentzia eduki behar du Elizak.

Jendartearen zati handi bat ere urrundu egin da Elizatik...

Bai. Jendartea poliedrikoa den moduan, Eliza esparru ezberdin eta aberatsetan aritzea beharrezkoa dela jabetzea garrantzitsua da.

"Gay eta lesbianen maitatzeko modu diferenteari abegi egin beharko lioke Elizak"

"Eliza esparru ezberdin eta aberatsetan aritzea beharrezkoa dela jabetzea inportantea da"

Gay eta lesbianekiko Eliza Katolikoak darabilen jarreraren gainean zer iritzi duzu?

Aukera galtzen ari gara. Elizaren diskurtso bakarra da horien arteko ohe kontuena. Fijazio moral bat dauka horretan Elizak. Baina aukera pastoralak galtzen gabiltza. Izan ere, gay eta lesbiana fededunak ezagutu ditut, Elizarengandik erabat baztertuta sentitzen direnak. Pertsona horien maitatzeko modu diferenteari harrera eta abegi egin beharko lioke Elizak.

Abortua, ezkon aurreko sexu harremanak, preserbatiboa... horiek guztiak errefusatzeko dituzte Eliza Katolikoak. Zer diuzu?

Moral unibertsal bat dauka Elizak eta berdina aplikatzen du Tanzaniarako edo Norvegiarako, eta ez da berdina bateko edo beste familia baten egoera. Elizak saiatu beharko luke, moral bakar eta orokorra planteatu barik, tokian tokiko errealitateetara moldatzen.

Bergara, Antzuola eta Elosuko parroko zara oraindik ere. Noiz lagako duzu kargua?

Alde egiten dugunean. Bergararako apaiz berria izendatu behar dugu, eta, hori egiten dugunean, uda partean, joango naiz hemendik.

Zelakoa izan da hiru urte eta erdiko esperientzia hau?

Gauza xumeenetan, ezkontzetan, bataioetan, mezetan, plazan, Elosuko festetan, gazteekin, Antzuola eta Bergarako jaietan... ikusi dut ez dugula gauza askorik behar zoriontsu izateko.

JENDARTEA > ATZEGI

Urteko bazkaria egingo du Atzegik Oñatin zapatuan

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeak 50. urtemuga ospatzen du aurten

E.A. > OÑATI

Debagoieneko Atzegiko kideek urteko batzarra eta bazkaria egingo dituzte Oñatin zapatuan, Zubikoa kiroldegian. Aurten 50 urte betetzen ditu Atzegik, Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeak. Hori dela-eta, Atzegiren historia batzen duen kartel eta

argazkien erakusketa dago ikusgai Oñatin. Erakusketa martitzenera arte egongo da zabalik Santa Marina kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Atzegikoek urtero egiten dute sentsibilizazio kanpaina. *Egunen batean ez da kartel honen beharrik izango* da aurtengo leloa.

HEZKUNTZA > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Lanean dihardutenendako titulu berriak MUn

E.A. > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak etengabeko prestakuntza formatuaren alde egin nahi du berrikuntza horrekin. Eskolan bertan jarraitzeko eta *on-line* egiteko ikasketak biltzen ditu,

eta banakako eta pertsona zehatzten prestakuntza beharrak nahiz mota guztietako enpresenak erantzun nahi ditu. Datoren ikasturtean eskainiko dituzte, hortaz, gradu titulazio bat eta zazpi master.



Martitzenean eman zuten prentsaurrekoa gazteek Bergaran.

JULEN IRIONDO

JENDARTEA > GAZTE MUGIMENDUA

Independentziaren aldeko aldarria Bruselaraino

E.A. > BERGARA

Bruselara, Europako Batasuneko egoitzaren aurrera eroan nahi dute independentziaren aldeko aldarria maiatzaren 19an Gaztherriakoek. "Etorkizunerako nahi dugun Euskal Herrian bizi izateko aukera ukatzen zaigu. Irtenbide baka-

rra da independentzia", diote. Nabarmendu dute apirilaren 2an Durangon egin zela "mugimendu honen lehen indar erakustaldia".

Bestalde, salatu dute orain-tsu Espainia eta Frantziako polizia Euskal Herriko hainbat gazte atxilotu izana.

> LANA

Lan hitzarmena sinatzeko eskatu dio LABek, protesta ginez, Arrasateko Ausolan enpresari

LABek protesta egin du Ausolan *catering* enpresaren (lehen Auzo Lagun) aurrean, Arrasaten, zuzendaritzari eskatzeko lan hitzarmena negoziatzea. Eskatzen du Ausolaneko langileendako administrazioko langileekiko parekotasuna, ehuneko ehunean. Urtebete baino gehiago da jangeletako langileen lan gatazka hasi zela eta 15 greba egun izan dira denbora tarte horretan. Biharko, zapatua, beste elkarretaratze bat deitu dute 10:15ean, Garaia Berrikuntza Gunean.

**zabalik**

Oskar Elizburu

Begia motz

Seguru gertatu jatzula inoiz, neri behintzat behin baino gehixagotan. Juan zara billera edo ikastarotxo batera eta jardun osua erderaz entzun behar izan dozu. Bertaratutakuak, gainera, gutxiengo arduratsuen artekuak izan dira, zein juatan da ba holakuetara?! Zer hasiko zara ba, zu, "jator" gutxi horren artian zirixa sartzen euskeria eta erderia dirala!? Keba, keba! Lehen be nahikua burukomiñ daukazu holakuetan be endredau barik!

Baiña inoiz eukiko zenduan horren gaineko berriketaldiren bat, konfiantzakuekin edo, eta, seguru, erosotasuna azaldu zala panazea modura. Hasteko "gaztelaniaz eginda denboria aurrerazten da". Geroxeago, "euskeraz gutxienguak daki, eta gaztelaniaz danok" aittatu dau batek edo batek. Eta errematerako, "total zertarako euskeria, baztarrak nahasteko!".

Eta zu ixildu egin zara, eta auzo-lotsa sentidu dozu, eta amorrua, baiña ixilik.

Ba egun batian, bixar akaso, hori esan dotsun horri erantzun eta bera deseroso ipiñiko daben adibidia azalduko dotsazu. Komodidadia behar badogu eta danok ulertzeko modua, zertan ez hizkuntza bakarria European? Inglesa porrejenplo! Edo munduan txinera, gehixago dira ta! Eta horren mesedetan zergaittik ez beste gutxiak baztertu?!

Berak dakixan eta bizi daben gaztelania bigarren maillako bihurtzeko prest ete dago? Hizkuntza eskubidea da, ala ez? Norberana jokuan daganian beste era batera ikusten dira gauzak, kamarada! "Gure gaztelania bigarren maillara, zelan baiña!", esango dau.

Geure sentitze horretan dago gakoa, jakiñarazi behar dotseu inporta jakula.

Bere eskubidia euki badaukanak, bestela, bestiendako begia motz!

"Norberana jokuan daganian beste era batera ikusten dira gauzak, kamarada"

ustek uste


Arantzazu Ezkibel

Nola ordain daiteke kaltea?

Mexikoko golkoan izan den petrolio isuria dela-eta, Obama AEBetako presidentek BP British Petroleum petrolio enpresa egin du gertatutakoaren erantzule. Gertatutakoaren ondorioak ordaindu beharko ditu BP enpresak. Haiek esan dute ordainduko dutela. Baina naturari egindako kaltea nola ordain daiteke? Badago hori ordaintzeko modurik? Asko, gehiegi irabazten dute petrolio enpresek; hortaz, isunak ordaintzeko gertu daude, hala ere irabaziak izaten jarraituko dute-eta.

marrazkiz

Unai Busturia

**blog-top**

Darwin Lotilandian

Joxe Aranzabal
<http://goiena.net/blogak/farao/>

Hala deritzo Kepa Altonagak *Darwin geurean* liburuan, eliza katolikoak narkotizatutako Euskal Herriari, Lotilandia, zeinak XX. mendeko 80. hamarraldia etorri arte ez baitzuen onartu eboluzioaren teoria, mende bat lehenago Charles Darwinek formulatu zuena Ingalaterran.

Lotilandian elizako zenbait gizon itzaltsuk euskara harresi gisa erabili zuten, kanpotik zetozen ideia arrotzek errorik egin ez zezaten gure artean. Giro horretan, hiztegitik famatu batek hitz bat asmatu zuen zientzialari ingelesaren pentsaera adierazteko: "*darbinkeri*", hitz erabat iraingarria. Eta Darwinek bezala pentsatzera ausartu ziren euskaldun bakanak, Jean Etxepare medikua kasu, bazterreratu egin zituzten, isiltasunik hotzenera kondenatuta.

Gustura irakurri dut, liburu apala neurrian, baina ederto erakusten du urte luzez Lotilandian bizi izan dugun lainopea.

Ez da erraza

Anjel Lertxundi
<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Zapaterok, oso aire atsekabertuz: "Ez da erraza horrela mintzatu beharra herritarrei". Krisia ukatzetik gaurdainoko bide luzea ere, ez zuen erraza izango. Ez zuen erraza izango ongizatea ukituko ez omen zuen politika baten aldeko diskurtsoari eustea, osti(kad)ak eskuinetik, ezkerretik, eta iparrorratzaren alde guztietatik zetozkion bitartean. Ez zuen erraza izango atzo no! zioen tokian orain to! esatea.

Zapaterok, oso aire atsekabertuz: "Berberak dira krisiaren sorrerarekin zerikusirik izan ez dutenak eta orain krisiaren ondorioak sufritzen ari direnak". Berberak dira, bai, baina hartutako neurriek eta egingo diren mozketek krisia sufritzen ari direnak zigortuko dituzte, atzo iragarritako neurrietan ez baitago bakar bat ere krisia eragin zutenen kontra, ezta errenta altuenei eragiten dionik ere. Ez, ez, da erraza izango horrela mintzatu beharra herritarrei. Ezta aurpegira begiratzea ere.

koplak

Eñaut Uriarte

Hurrengo astian Pentekostiak

Badatozela badatozela hor dittugula gainian, Pentekostiak heltzen jakula jada hurrengo astian.

Espero be aurten egotia jai ona eta girua, nahiz eta krisi garai honetan igual ez dan oparua.

Beste batzutan tokatu jaku hemen hamaika halako, ahal dan onduen igaro bihar hala tokatzen dalako.

Bazkai herrikoirako errekorra aurten lortu nahi dabela, nik igandian badaezpada erosi neban txartela.

700 pertsonantzat da aurten ipini daben tokixa, hortaz gaztiok ez dadukagu ez juteko aitzakixa.

Norbera izan deila jaixetan norbere giruan jabe, beraz guztiok ondo pasatu ahal bada pasatu gabe.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAK
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Siletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriaketa Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ibaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakoko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Usurbilgo Ituna eta zaborren kudeaketarako alternatibak

Rebeka Ubera

(Aralar)
Elgeta

Zalantzarik gabe, zaborren kudeaketarako alternatiba egokiena ahalik eta zabor gutxien sortzetik abiatu beharko litzateke eta, beraz, gaur egungo garapen eredu kontsumista aldatu egin beharko genuke. Garbi dago aldaketa hori errotik egitea ezinezkoa dela; izan ere, desberdin pentsatu, desberdin bizi eta erantzukizun maila desberdina dugun pertsonok osatzen dugu gizartea. Baina, era berean, zalantzarik gabe esan genezake asko egin dezakegula, bai erakundeetatik eta baita herritarrok ere, zaborren kudeaketa iraunkorragoa eta osasuntsuagoa izan dadin; sozialki eta ekonomiki. Horretarako, lehenengo eta behin, prest egon behar dugu herritarrei argi eta garbi adierazteko sistema, teknologia eta eredu desberdinen alde onak eta alde txarrak. Azken finean, inor ez delako egia absolutuaren jabe.

Aralarren aburuz, zaborren kudeaketaren gainean herritarren artean zabaldu den eztabaida faltsua da. Faltsua eta murriztailea; hainbat modu daudelako hondakinen kudeaketarako. Izan ere, faltsua da atez atekoaren eta bosgarren edukiontzia arteko konfrontazioa sortu nahi izatea bateraezintasuna azpimarratuz. Ez da bata ala bestea; biak izan daitezke baliagarriak, baldin eta seriotasunez eta eraginkortasunez aplikatzen badira.

Biak uztar daitezke, tokian tokiko ezaugarrien arabera. Erarik egokiena? Tokian tokian ahalik eta ondoen eta gehien bilduko duen bilketa

selektiboa martxan jartzea. Usurbilen bilketa hori atez atekoaren bidez egin dela? Ba primeran, aurrera! Txalotu egin behar da usurbildarrek egindako ahalegina, zaborrak ahalik eta osasuntsuen kudeatzeko. Baina garbi izan behar dugu atez atekoa bilketaren atalari baino ez dagokiola eta zaborren kudeaketak, aurreko eta ondorengo beste fase batzuk eskatzen dituela. Baina fase guztiak, itxierako fasera heldu aurretik zenbat eta gehiago landu, orduan eta ageriago azalduko da erraus-teko planta bezalako teknologia zaharkituak sobera daudela.

Aralar ez dago ados Foru Aldunditik sustatu duten eta, dagoeneko, garatzen ari diren zaborren kudeaketarekin. Zaborren kudeaketa zikloak ez ditu, gure ustez, oinarrikoak diren irizpideak kontuan hartzen. Ez du kontuan hartzen hondakinen kudeaketa iraunkorra, iraunkortasuna bere zentzurik zabalenean ulertuz, ingurumenari dago-kionez, baina baita iraunkortasun sozialari eta ekonomikoari lotutakoa; ezta hurbiltasun printzipioa ere –sortzen diren tokitik ahalik eta hurbilen tratatzea–; ezta prebentzioa ere –zaborrak ahalik eta gutxien sortzea irizpide nagusi duena eta horretan indarra egiten duena.

Eredu horrek ez du azter-tzen zein den gastu energetikoan aurreztu eta ahalik eta energia gehien sortuko duen eredu; ezta zein den gaikako bilketa osotasunean kontuan hartzen duena ere; ezta azpiegitura erraldoiak ekidindu dituen...

Horren guztiaren oinarri dagoena da errausketa-aren aldeko erabakia duela zenbait urte hartu zela. Horrek esan nahi du azken urteetan hondakinen kudeaketa izan diren aurrerape-nak ez direla kontuan hartu. Errausketaren beharra baztertzen duten alternatiba

serioak gero eta gehiago dira eta pena litzateke Europan eraikitzen den azken erraus-tegia Gipuzkoan izatea.

Aralarren irudiko, urra-tsez urrats, gakoa, lehenengo eta behin, ahalik eta zabor gutxien sortzean legoke. Beste gako bat gure sailkapena egin eta gero geratzen zaigun zabor poltsan legoke.

Beraz, behin bilketaren urratsa egin eta gero, bilduta-ko horri aterabidea bilatzeko orduan, sailkatze eta birbalor-atz sistema aurreratuen aldeko apustua egin beharko litzateke. Sistema horiek gaur egungo edukiontzi berdeetan jasotzen den zaborra berriz sailkatze zirkuituan sartzea ahalbidetuko lukete. Ondorioz, azken gerakina murriz-tuz neurri handi batean. Kutsadura isurketa minimoak dituzte, isurketarik eza ez esatearren, eta energetikoki eraginkorragoak dira. Azken finean, energia berriztagar-rien aldeko apustua litzate-ke. Horrez gain, tokian tokian ezartzeko aukera legoke.

Sailkatze eta birbaloratz sistema bolumena %80ra jaitziko lukete eta birziklapena %90era hurbildu. Bertatik aterako liratekeen metalak eta beirak birziklatzeko azpiegiturara bideratuko lirateke. Energia frakzioak, plastikoa, egurra eta materia organikoa, berriz, errausketa ez den balorizazio energetiko plantara bideratuz; hots, gasifikazio plantara. Horren emaitza energia berriztagar-ria izango litzateke. Gasifika-zio planta horiek ez dute furanorik, dioxinarik, nitro-geno oxidorik isurtzen. Zergatik? Aurretik metalak kendu zaizkielako. Eta, oro har, beraien kutsadura maila askoz ere baxuagoa da, eta ez da azpiegitura handirik behar. Gainera, bioerregaiak lor daitezke bertatik.

Gasifikazio planta hauek errausketa plantetatik ongi bereiztea nahiko genuke; izan ere, hainbat herrialdeetan gasifikazio izena eman zaie

errausketa planta kamufla-tuei.

Tokian tokiko sailkatze eta birbaloratz azpiegiturakin batera, konpostaje programa-rekin jarraituko genuke. Masa kritikoa heltzen den tokietan, biometanizazioa gehituz.

Azaldurikoa modu bat izan daiteke zaborrak kudeatzeko beste batzuen artean. Ez diezagutela kontatu aukera bakarraren ipuina errausketa sartzeko.

Musakola jaiak eta baserriarren kolaborazioa

Espe Agiriano Altuna

(Arrasate)

Auzoko baserriarrak bizi guztian, baina batez ere azkenengo bi hilabeteetan, martxoaren hasieran haize gogorak etorri zirenetik, basoak garbitzen ibili gara: erori ziren zuhaitzak erretira-tzen bideak libre uzteko, eta bideak garbitzen; hau da, auzoko baserriarren artean egindako bideak garbitzen... lan asko eginez eta kezkatuta oraindik egiteko asko gera-tzen delako.

Musakola jaiak iritsi dira eta mendiko bizikletaren irteera antolatu da...

Zorte handia izan dute partaideek, ia dena garbi topatu dute eta!

Zein polita den mendia dena-dena garbi-garbia dagoenean eta bideak daude-nean!

Arrasateko bide publikoak

M. Nieves Muñoa

Arrasate

Arrasateko Udalak lan polita egin berri du bertako eta

inguruko bideen katalogazioa berrituz eta bideak berrizen-datuz. Orain, eta hemendik aurrera, herritar guztioi dagokigu bide hauek ezagutu, erabili eta zaintzea, urteetan zehar gure arbasoek egin izan duten bezala.

Hala ere, momentu hone-tan, katalogazio horretan agertzen diren hainbat bide ez daude erabilera publikorako irekiak. Garagartza eta Gesalibar aldeko hainbat bidetan zehazki, bide horietan aurrera eginda, *Propiedad privada* delako kartel hori batzuk daude jarriak, bertatik jarraitzeko debekuekin. Kartel hauek trenaren lane-tan diharduten enpresek jarri dituzte, herritarrek bertatik pasatzea ez dute gustuko eta. Honekin argi ikusten da beraiek bakarrik hartzen dituztela erabakiak: zer norena den erabaki, eta herritarrentzako bide publiko ditugunak "pribatiza-tu".

Arrasateko bide publikoen katalogoan dauden lauzpabost bide daude egoera honetan, gutxienez: Gesalibar auzoko San Jurgi eta Parraia baserri-tik gora doazen bideak (Parraiatik gorako bidea guztiz apurtu berri dute eta bertatik oinez ere ezin da pasa). Garagartzako Lete baserriatik Besaide alderako bidea eta Garagartza auzotik bertatik Besaidera doan betiko bide naturala ere egoera honetan daude, Leze-txiki aldera igotzeko bideare-kin batera. Azken bide honen aldamentetik jaisten den erreka txikia ere lehortu egin da, bertatik hartzen baitzuten Udalatzeko zuloa egiteko behar izan duten ura.

Arrasateko bide publikoen inguruan argitaratu den katalogazioak jarraipen zehatz bat eskatzen du, bertan azaltzen diren bide zatiak bere horretan mantendu eta babestu behar direlako. Lan hau Udalarri ere badagokio, bide publiko hauetan azaldu diren kartel pribatuak kentze-ko lanarekin batera.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin bate-ra bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Ondo ibili Pazkoetan!



Offset inpresioa

Enkuadernazioa

Koloretako fotokopiak

Komenio, 2 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41 • E-mail: imprespal@euskalnet.net

Horrenbeste buruhauste sor- tagarrikerabiltzen hastera, Uralde donostiarrak, Greenpe- aldatzen ari diren azpiegitura
tzen ari den Lurraren klima alda- haizea eta eguzkia- "ezinbeste- ace Espainiako zuzendariak. Bes- handiak krisian dagoen eredu
keta geldiarazteko energia berriz- koa" dela uste du Juan Lopez de talde, Debagoieneko paisaia batetik datozela uste du.

Juan Lopez de Uralde > Greenpeace Espainiako zuzendaria

"Azpiegitura handiak, bitartekoak baino gehiago, ekonomiarako helburuak dira"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan Ingeniaritza ikasi duten 2009ko promozioko diploma banaketa ekitaldia egin zuten joan den egubakoitzean, hilak 7. Ekitaldira Juan Lopez de Uralde Greenpeace Espainiako zuzendaria gonbidatu zuen MUK. Eta bisita aitzakia hartuta, hitzaldiaren aurretik Lopez de Uralderekin egon ginen, ingurumenaren gaineko hamaika gairen inguruan berbetan.

Klima aldaketa eta energia berriztagarriak puri-purian dauden gaiak dira. Zergatik?

Klima aldaketa bizi izaten ari den planeta baten bizi gara, eta aldaketa hori erregai fosilen gehiegizko erabilpenak eragin du. Hau da, ikatza, petrolio eta gasa larregi ustiatu dira; denbora tarte txikian, gainera. Hala, krisi hirukoitz baten bizi gara egun: krisi ekonomikoa, energetikoa eta ingurumen-krisia. Energia eredu aldatzeko ordua heldu da, industrializaziotik eratorria den eredu hau zaharkitua geratu da-eta.

Hala, egun nagusi den ereduari energia berriztagarriak dira alternatiba bakarrak. Hain zuzen, uraren, haizearen eta eguzkiaren erabilpena dira alternatibak. Honakoa da, orain bertan, gizadiaren erroka handiena: klima aldaketak txarrera egin ez dezan eta aldi berean krisi energetikoa areagotu ez dadin, nola alda gaitzkeen egungo eredu energetikotik eredu berriztagarrietara.

Bi kontzeptu horiek noraino datoz bat?

Oso lotuta doaz. Azken finean, klima aldaketa gertatzen ari da gizadiak energia sortzeko garatu duen ereduagatik. Biosferak milioika urtetan lur azpian gorde duen karbono monoxidoa energia sortzeko ateratzen ari gara; noski, biosferak tenperatura eta presio egoera berezi batzuetan erregai fosilak bihurtuta. Hala, karbono monoxido hori atmosferara bueltatzen ari gara oso denbora tarte txikian. Atmosferaren kutsadura hori da klima aldaketa eragin duena.

Debagoienean Abiadura Handiko Trenak edo autobideak, esaterako, gure paisaia aldatzen ari dira. Zer deritzozu?

Azpiegitura handiak egitera garamatzen eredu krisian dago. Azpiegiturak, bitartekoak izan beharrean, helburua dira egun.



Juan Antonio Lopez de Uralde, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Amaian hitzaldia egin aurretik.

J.B.

Ekonomiari bultzada bat emateko obrak dira, hain zuzen. Eta kontzeptu hori aldatu beharra daukagu. Egundak badira alternatibak gure mugikortasuna ahalbide-tzen dutenak, eta, noski, ingurumenari kalte txikiagoa egiten diotenak eta merkeagoak direnak.

Zeintzuk, bada?

Bestelako tren eredu baten sinesten dugu, Abiadura Handiko Trenarena ez dena. Merkan-

"Ekoizpen sistema garbiak behar dira; gero naturak disolbatzen jakingo dituen hondakinak sortuz ekoiztea da erroka"

tziak eta pertsonak eramateko balioko luke, ingurumenari askoz kalte txikiagoa eginda.

Deba ibaia Gipuzkoako zikinetakoa da. Nola azalduko zenuke?

Orain gutxi arte, ingurumena dena jasateko gai zela uste zen. Zabor guztia errekarra botatzen zen, duela ez hainbeste. Eta zabor hori gero eta toxikagoa egiten joan den heinean, ekosistemak

zikinkeria hori disolbatzeko gaitasuna galtzen joan dira. Finean, gure ibaien zikinkeria jatorria da zikinkeria guztia errekarra botatzeko tradizioa.

Azken hamarkadan gure urek hobera egin dute. Nahiko hobetu dira?

Euskal Herriko uren bilakera oso interesgarria izan da. Orain dela bi hamarkada kritiko zen egoera, eta, urtetako lanaren ostean, asko hobetu da uraren kalitatea. Egundak, baina, hobetzen jarraitzea oso zaila da; maila batera heldu gara, non uraren arazketa sistemak ez diren eraginkorrak.

Horren aurrean, ekoizpen sistema garbiak aplikatu behar dira uste dugu. Hau da, edozein ekoizpen prozesutan gero naturak disolbatzen jakingo dituen hondakinak sortzea da erroka.

Eta amaitzeko, zein da Mexikoko Golkoko beste hondamendi bat ekiditeko modua?


Korporazioen gainean presio handiagoa egin behar da. Azken urteetan ikusi dugu gobernuek ez dutela korporazioen aurrean hartu behar diren neurriak hartzen. Neurriok hartzera behartu behar dituzte, komunean dugun ondarea defendatu ahal izateko. Mexikoko Golkoa, gainera, izugarri aberatsa den zona da.

Eta ez hori bakarrik: badirudi hainbat ingurumen-politika korporazioek eurek erabakitzen dituztela, gobernuek beharrean. Adibidez, itsaso zabalean egiten diren petrolio-ustiapenen gaineko erabakiak korporazioek hartzen dituztela dirudi. Horren adibide garbia badugu: Barack Obama AEBetako presidentek Mexikoko Golkoko hondamendi gertatu baino hilabete eskas lehenago aditzera eman zuen ordura arte debekatuta zeuden guneetan ustiatzen hasiko zirela. Horrek erakusten du *lobby* horien erabakiek Obamaren hitza baino indar handiagoa dutela.

Korporazioen erabakiak gobernuen gainetik daudela diozu, beraz.

Askotan bai. Batez ere petrolioaren eta energiaren sektoreetan, gobernuek ez dute korporazioen gainean presioa nahikoa egiten. Eta gobernuen betebeharra da guztion ondarea dena defendatzea. Eta ez dago ingurumena baino ondare preziatuagorik.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

LABORATEGI HOMEOPATIKOA

(JAVIER BARRENETXEA FARMAZIA)

Oñati / Kale zaharra 1 / 943 78 32 14

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53



Goiena, egoitza berrian Bergaran

Aurrerantzean, Bergarako Irizar jauregian beharreen,
Begarako Ibarra 6n aurkituko gaituzue
(lehen, Arcelorren bulegoak), Labegaraietako elizaren ondoan.

Eskelak, zorion agurrak eta iragarki sailkatuak jartzeko,
edo beste edozertarako, bertan gaituzu.


Harrera: 09:30-13:00 / 15:30-18:00 **Telefonoa:** 943 25 05 05 **Faxa:** 943 25 05 12 www.goiena.com

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARETXABALETA**
Euskerien Egunean hainbat ospakizun egingo dituzte bihar, zapatua > 22



> **ESKORIATZA**
Aranburuzabalako lanak bukatu dira; 320.000 euro kostatu da > 24



> **ARAMAIO**
Ekainean egingo dituzte eskolako obrak, Udalak hala erabakita > 26



> **ELGETA**
Eskola arteko herri kirol txapelketan ondo ibili dira alebinak > 27

OÑATI > AZPIEGITURAK

Zubillagako zubia itxura hartzen hasiko da: taula ipiniko dute laster



Lanak oso aurreratuta daude, eta dagoeneko zubiaren forma ikusten da.

LEIRE KORTABARRIA

HURRENGO

Taula ipini eta gero, altzairuzko arku lodiak ipiniko dituzte; gero, euskarria eta tiranteak

SEGURTASUNA

Helburua da auzoa uholdeetatik babestea, eta neguko euriteetan ikusi da eragina

BIDE ONETIK

Proiektua 2006koa da, eta, atzerapen handien ondoren, abuztuan zubia gertu egongo da

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Zubillagatik pasatzen den gunean ibaiaren urak bideratzeko eta uholdeak saihesteko egiten diharduten obrak azkenean bideratuta daude, eta Udalak uste du obraren zati ikusgarriena izango den zubia –zubi moderno, ederra– abuztuan egin ahal izango dutela lanak egiten diharduten Moia eraikuntza enpresako langileek.

Datorren astean aurreikusita daukate arduradunek obraren zati garrantzitsu bat egitea: zubi horren taula eraikitzea. Bereiztasuna da ez dela eginda etorriko eta gero ipiniko, baizik eta lekuan bertan hormigoitu behar dela. Obren zuzendari Fernando Ortzek ematen digu azalpen gehiago: "Hurrengo pausoak izango dira altzairuzko arkuak jartzeta, zubiaren euskarria; segidan, tiranteak. Hori egin eta gero, oinezkoendako harlosaren estruktura egingo dugu". Dena bukatzen dutenean, Altuna ondo eta trenbide zaharreko zubiak bota egingo dituzte.

Lanok beste zati garrantzitsu bat zuten: Altuna ondoan dagoen presaren kota jaistea, 2,6 metrora, eta hori eginda dago.

UHOLDEAK SAIHESTEKO

Zubia bukatutakoan, Zubillagako ibai aldea, Altuna ingurukoa, ikusgarri geratuko da.

Ikusgarri, eta, are garrantzitsuago: seguru. Izan ere, lanekin Oñatiko Udalak bete gura duen helburu nagusia da auzoari uholdeen aurrean babesa eman, eta horiek saihestu. Datu estatistikoaren arabera, Zubillagako uholde arrisku oso handia dauka: 100 urtean behin ur-kolpe handia jasango luke, eta orain arteko egiturak ez ziren egokiak arriskua ekiditeko; urei eutsi baino gehiago, uholdeak lagundu egiten zituzten egitura zaharrek. Hala, 1983an eta 1992an, Zubillagako uholde larriak izan zituen.

Oñatiko Hirigintza zinegotzi Anjel Biainek dioen moduan, zubi azpitik pasatzerakoan, "ur-xafla oso altu geratzen zen, eta samur egiten zuen gainezka. Zubiak oso begi txikia dauka".

Auzotarrak hasi dira lanon eragina igartzen; hala, joan den negu latzean izandako elurte eta euriteek eragin zituzten ur handiek ez zuten arazorik sortu.

ESPALOA, ZABALAGOA

Lanok gorabeheratsuak izan dira. Hala, 2006ko maiatzekoa da proiektua, eta lanak urte hartan egin gura ziren. Hainbat atzerapen izan dira, hortaz; tartean, sei hilean etenda egon ziren, Eusko Jaurlaritzako aldaketa tarteko,

lanon %75 Ingurumen Sailak ordaintzen dituelako. Azkenean, Moia eraikuntza enpresa eta Eusko Jaurlaritza ados jarri ziren eta lanei berriz ekin zieten.

Teknikoki ere lan "konplikatuak" dira, Fernando Ortzek dioen moduan: "Zubia oso moderno da, eta oso berezia ere bai: hormigoia lekuan bertan ipini behar da, eta horrez gain, altzairuzko arkuak ohi baino lodiagoak dira. Era berean, altzairua injekzioz sartzen da barruan".

Epeetan bakarrak ez, zubiaren ezaugarrietan ere aldaketak egon dira: bidegorria ere pasako denez, espaloia 3,6 metrokoa izango da alde bakoitzean, eta ez 2,26 metrokoa, aurrekusi bezala.

DATUA

42

METRO

Zubillagako zubi abangoardista 42 metro luze izango da; galtzada 7 metrokoa izango du, eta 3,60 metroko espaloia alde bakoitzean. 6 metro garai izango da.

DATUA

3,6

MILIOI EURO

Aurrekontua 3,6 milioi euro da lan guztiak egiteko; Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziak %75 jartzen du eta Udalak Aldundiaren 901.000 euro jaso ditu.

ESANAK

"Zubi oso moderno da, eta berezia ere bai: hormigoia lekuan bertan ipini behar da, eta arkuak ohi baino lodiagoak dira"

Fernando Ortz > Lanen zuzendaria

LANA > ESKAINTZA PUBLIKOA

Lanpostu publikoetarako 960 eskaera inguru jaso ditu Udal Enplegu Sailak

18 lanpostu bete gura dituzte eta horietatik 15era edozein aurkez daiteke; jasotako eskaerak baldintzak betetzen dituzten aztertzen ari dira orain

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Udaleko lan eskaintza publikoak "inoiz baino eskaera gehiago" jaso ditu, Enplegu Sailak aditzera eman duenez. Izan ere, Udalak bete gura dituen 18 funtzionario postuetarako 15 dira edozein herritarri begira eskaini direnak. Hau da, hiru lanpostu barne promoziorako eskaini dituzte eta beste 15ak lehiaketa publikorako zuzendu dira. Hala, atzo eguerdian emandako datuen arabera, 960 eskaera inguru jaso dituzte.

Posta tradizionalaren edo BAZen bertan entregatuz egin dira eskaerak. Baina aurtun



BAZeko langile eta administrari lanpostuetarako jaso dituzte eskaera gehienak.

UBANE MADERA

berritasun nagusia izan da eskaerak Udalaren webgune berrituan eskaera egiteko aukera izan dutela. Bada, Internet

bidez jaso diren eskaera kopuruak Enplegu Sailaren aurreikuspen guztiak hautsi ditu: 643 eskaera jaso dituzte.

ADMINISTRARI EDO BAZ-ERAKO

Orain arte aztertu dituzten eskaeren arabera, herritar gehienek izena eman dute administrari edo

DATUA

643

ESKAERA, INTERNETEZ BAKARRIK

Enplegu saila aztertzen ari den 960 eskaera horietatik 643 internet bidez jaso dituzte. Kontuan izan behar da Udalaren webgunetik eskaera egiteko aukera berrikuntza izan dela.

BAZen lan egiteko. Horiez gain, honako lanpostu hauek egonkor-tu gura ditu Udalak, besteak beste: bi udaltzain, bi liburuzain laguntzaile, Ingurumen Eskolako irakaslea, ehorzlea eta peoia. Postuok funtzionario izaera dute.

ESKAERAK AZTERTZEN

Orain, eskaerak aztertzen dihardute. Izan ere, eskaera bera egiteko bide ezberdinak erabili dituzte batzuek. Gainera, eskaerak baldintzak betetzen diren ere aztertzen dihardute.

AISIALDIA > KULTURA ESKAINTZA

Erdi Aroko azokaren etorkizuna "airean" dago eta maiatzean, behintzat, ez da egingo

Udalak eta Naparbideak elkarrekin ez dute akordiorik lortu data zehazterakoan

J.B. > ARRASATE

Azken sei urteetan maiatzean egin izan da Erdi Aroko azoka. Bada, aurtun ez da maiatzean egingo. Arrazoa da, Udalak jakinarazi duenez, Naparbideak elkarrekin ez dutela akordiorik lortu azokaren data zehazterakoan.

ZALANTZAN

Orain arte Udalak Naparbideak elkarrekin antolatu izan du azoka. Hala, data ez onartzeko azalpen modura San Andresko jaiak, Musakolako jaiak eta Mundumira jaiak maiatzean direla aipatu ditu Udalak. Eta datozen urteei begira, Jon Garai Kultura teknikariak jakinarazi duenez, azokaren etorkizuna "airean" dago. Kontuan izan behar da beste ospakizun bereziren bat egon denean azokako parte-hartzeak behera egin duela, nabarmen.



Azokako ikuskizun bat.

GOIENKARIA

AISIALDIA > UDALEKUAK

Txatxilipurdi pozik aurtun ere jasotako erantzunarekin

Udaleku irekietarako iaz baino haur gutxiagok eman dute izena; hala ere, 240 ume izango dira

J.B. > ARRASATE

Joan den maiatzaren 7an itxi zuen Txatxilipurdik udalekue-tan izena emateko epea. Eskerak jaso eta lehen balorazioa egin ostean, elkarteko kideak "oso pozik" daude emaitzarekin.

Orioko udaleku itxietarako, esaterako, izenematea zabaldu eta berehala bete ziren bi txandak. Hori bai, udaleku irekietan iaz baino ume gutxiagok eman

dute izena. Txatxilipurdik uste du horren arrazoiak bat izan daitekeela kuotak garestiagoak direla, udaleku irekiak astebe-te luzatu dituztelako.

UDALEKU "APARTENEN" BILA

Azkenik, aisialdia euskaraz eskaintzen duen elkarrekin adierazi du euren esku dagoen "guztia" egingo dutela udalekurik "apartenak" eskaintzeko.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

OSPAKIZUNAK > MUSAKOLAKO JAIK

Aurten ere aste bukaera osorako parranda gogoz etorriko da astoa

Gaur hasi eta domekara arte ez da aspertzeko astirik izango; ez dute eguraldi onik iragarri, baina auzotarrek festarako gogoia dute

ASTOA, HERENSUGEAREN GAINETIK Musakolakoek *Ziorla* independentea aldarrikatzen dute; astoa da euren ikurra, eta ez herensugea. Independentzia aldarrikapen horren adibide garbia da aurtengo jai egitarauaren portada: Eroski atzetik ateratako argazkian, itsasoa jarri diote auzoari, saihebidetaren orde. Umorerik ez zaie falta, behintzat.

Izan ere, auzotarrek urte osoan zehar, eta jaietan bereziki, kantatzeko ohitura duten ereserkiak ere argi dio: *Es en en Ziorla donde reina la alegría, es en Ziorla donde reina el buen humor...*

URREZKO ASTAKILOAREN SARIA

Jai egitarauaren barruan joan den domekako BTT irteera eta eguazteneko erretiratuendako mus, briska eta tute txapelketen finalak ere sartu dituzte, baina gaur, egubakoitza, hasiko dira jaietako ekitaldi potoloenak. Eta,

noski, domekara arte festa giroak ez du etenik izango.

Jesus Mari Apraitz auzo alkatetate hiru ekitaldi nabarmendu ditu, beste ekitaldiak ahaztu barik: herri bazkaria, San Isidro sokatira sari nagusia eta, "mundu osoko kategorian", Urrezko Astakiloaren saria. Sari preziatua da auzotarren artean; hone-lazazaltzen du Apraitzek: "Urte osoan zehar auzoaren alde egindako lanagatik Jai batzordeak auzoko bati ematen dion saria da, esker onez ematen zaiona".

Azken ordura arte Jai batzordeak ezkutuan gordetzen du nor den Urrezko Astakiloa. Hala, sari banaketara –bihar, zapatua, auzo alkatetzan (13:30)– disimulu osoz gonbidatzen dute sariduna, eta, joaterik ez badu, batzordeak jaietan zabalitzen du lau haizeetara protagonistaren izena. Joaterik ez badu, edozein unetan ematen diote hain sari preziatua.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Musakolako jaiak bereziak direnik ezin da ukatu. Herriko beste auzoetako jaietan ez moduan, auzotarrak asko inplikatzeko dira jaiak aurrera egin dezaten. Eta, finean, horregatik dira Arrasateko auzoetako jaien artean festarik arrakastatsuenak.

Iazko jaietan eguraldia ezin hobea izan bazen ere, aurtengo iragarpenek kontrakoa diote, erabat. Euriak eta tenperatura freskoak, baina, ez dute Zigorrolakoen festa gogoia uxatuko.

Iago Cascon > Orhipean elkarteko kidea

"Hasiberriak gara, bai, baina ekintzak antolatzeke orduan erritmo ona daramagu"

J.B. > ARRASATE

Ori mendiaren magalean, mendiaren azpian, dago Iratiko basoa. Eta Arrasateko Irati elkartetik sortu da Orhipean kultura eragintza taldea; hortik izena. Zazpi hilabete inguruko ibilbidea du taldeak, eta hamaika ekitaldi antolatu dituzte. Biharko, esaterako, egun osorako egitaraua prestatu dute. Iago Cascon elkarteko kidearekin egon gara, elkarreaz eta biharko jaiaz berbetan.



Iago Cascon, biharko gonbita egiten. J.B.

Nola sortu zen Orhipean?

Irati elkartean eta tabernan ibiltzen garen talde bat elkartu, eta bertako kultura eskaintza dinamizatzeke sortu genuen Orhipean, iazko urrian, eta ordutik hona hainbat ekitaldi antolatu ditugu.

Hasiera fasean zaudete, beraz.

Bai. Dagoeneko legalki eratu gara eta taldeak erritmoa hartu

du. Hasiberriak gara, bai, baina ekintzak antolatzeke orduan erritmo onean goazela esango nuke.

Zenbat ekitaldi antolatu dituzte orain arte?

Zenbait kontzertu, ikastaroak eta hitzaldiren bat edo beste.

Nondik lortzen duzue ekintzok antolatzeke dirua?

Ez dugu inongo dirulaguntzarik eskatu; datorren ikasturtean eskatuko ditugu.

Metxeroak eta atera ditugu, baina diru iturri nagusia egubakoitzero Irati tabernan jartzen ditugun pintxoak dira.

Bihar egun handia izango duzue. Zein da egitaraua?


Udazkenean eta neguan egin izan dugu jaiak; orain udaberrikoaren txanda da. Goizean mural bat egingo dugu, Irati kanpoko salmoi koloredun horma behingoz apaintzeke. Gero, haurrendako jokoak izango dira eta horren ostean, trikipotea. Bazkaltzeke parrilada egingo dugu eta eguraldiak ez badu laguntzen, elkartean jango dugu. Azkenik, Never Surrender-ek joko du, taberna barruan.

Egitaraua, egubakoitzetik domekara arte

EGUBAKOITZA, 14

- 10:00 Kanpaiak eta kohete jaurtiketa.
- 10:15 Haurrendako kirol jokoak.
- 11:30 Danborrada, Arizmendiko umeekin.
- 17:00 Merienda haur guztiendako, gazte txokoan.
- 17:30 SPINNING MASTER CLASS saioa kiroldegian, kanpoko patinajerako aterpean.
- 17:30 Pintxo dastaketa herri eskolan, Ekin-ek antolatuta.
- 17:30 Ikurrina igotzea. Buruhandiak, kilikiak eta gaiteroek lagunduta. Alkatetzatik gozokiak botako dira.
- 19:30 Auzoko jubilatueendako afaria Al-Andalusen.
- 23:00 Rock kontzertua LINED eta ANGER taldeekin, San Antolin plazan.
- 23:00 Berbena KAIXOekin, San Isidro eliza ondoan.

plazan. Patata tortila lehiaketa, gazteendako.
12:00 KENPO ERAKUSTALDIA Ziar Ola elkarrearen ondoko plazan.



- 12:00 Umeendako ASTO JAI Auzoherrin. Txikiteoa gaiteroekin. Jubilatuen etxetik irtingo du astoak.
- 13:30 Urrezko astakiloa.
- 14:00 Baserritarren bazkaria.
- 15:00 HERRI BAZKARIA San Isidro eliza ondoan.
- 17:00 Herri kalejira.
- 17:00-20:00 Puzgarriak San Antolin plazan.
- 18:00 San Isidro Sokatira saria.
- 19:30 Buruhandiak, gaiteroekin.
- 23:00 LOS CRETINOS eta BITTER HONEY taldeen rock kontzertua.



DOMEKA, 16

- 11:30-13:30 Puzgarriak.
- 11:30 Gimnasia erritmiko erakustaldia, kiroldegian.
- 18:30 Txikiteoa, otxote Txorbelako kideen kantuekin.
- 22:30 Azken traka, suzko errubera eta sorpresak, Paseo Maritimoan.

ZAPATUA, 15

- 11:00 Meza nagusia San Isidro elizan. Ondoren, abesbatza eta luntxa San Isidro elkartean.
- 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin

LAPURRETAK

Garbigune ondoan udaltzainek hiru atxilotu

J.B. > ARRASATE

Udaltzaingoak errumaniar jatorriko hiru lagun atxilotu zituen martitzen iluntzean Garagartzara bidean dagoen garbigunean. Adierazi duteenez, patruila batek material ezberdinak –kobrea, aluminioa eta burdina, besteak beste– lapurtzen ikusi zituen.

BATEN ATZETIK JARRAIA

Ustez lapurtzen zeuden hiru pertsonetatik bi lapurretan atzeman eta berehala atxilotu zituzten. Bestea, baina, ihes egiten saiatu zen, errekarra sartuz. Ordu erdi geroago baso inguruan aurkitu zuten. Hiru susmagarrietatik bat adin txikiakoa da.

> SUDC

Uribarri irabazle Danok-Bat elkarteko mus txapelketan

Danok-Bat elkarteko 75. urteurrenaren barruan antolatutako elkarte arteko mus txapelketan Uribarri ordezkatu zuen bikotea izan zen onena, finalean Santa Marinako elkarte-ari irabazita. Hirugarrena Danok-Bat izan zen eta laugarrena, Alkartu. 13 elkartek hartu zuten parte.

> ARIZMENDI

Batxilergoko lehen urteko ikasleen moda desfilea gaur Amaian

Urtero moduan, Arizmendi ikastolako batxilergoko lehen urteko ikasleek moda desfilea egingo dute gaur. Helburua da datorren urtean egingo duten ikas bidairako dirua lortzea. Amaia antzokian izango da, 18:30ean. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARAN

Jatetxea

Garagartzara auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

KONTZERTUA

Governors
eta UK Bill
taldeak 3
aretoan

X.U. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Governors eta UK Bill taldeak 3 aretoan izango dira kontzertua eskaintzen (23:00, 7 euro).

Arrasateko boskoteak azken lana aurkeztuko du etxeko jarraitzaileen aurrean, *Frenetikodrome* izeneko diskoa.

UK BILL, AÑORGAKOAK

Governorsekin batera Añorgako UK Bill taldeak joko du. Talde hori 2005ean sortu zuten, Utikan, Asgarth eta Lauroba taldeetako jendea batuta. Añorgakoen azken lana, *Paradisu sekretua*, entzun ahal izango da 3 aretoko taula gainean. Horrenbestez, gura beste rock gaur gauean Arrasaten.

KONTZERTUA

Pettik
emanaldi
akustikoa
Gure Lekun

X.U. > ARRASATE

Bihar, zapatua, Petti bakar-lariak kontzertu akustikoa egingo du Gure Leku tabernan (23:00). Berako abeslariaren azken lana 2009koa da, Barence Withfield kantari estatubatuararekin estudioan sartu eta *Petti & The Bloodyhotsak* diskoa grabatu zuteneko. Folk kantu biluziak, blues gordina, soul iluna, pop harribitxiak... Ikusteko dago zapatuan zerekin harritzen dituen entzuleak.

ONDOREN, ROCKA

Pettiren emanaldiaren ondoren Mansilla Rock disko-jar-tzaileak girotuko du Arrasateko tabernan zapatu gaua.



Petti bakarlarria.

GOIENKARIA



Luengo anai-arrebak Arrasateko futbol, saskibalo eta atletismo taldeetako partaide izan dira.

PATXI DE ANDRES

FUTBOLA > OMENALDIA

Luengo familiari omenaldia
egingo diote kirol taldeek bihar

Mojategin egingo duten omenaldian beteranoen hainbat partidu jokatu dituzte, 11:30ean hasita

no disko jaurtitzalea eta atletismoko epaile izan zen.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Hamarkada hauetan luengotarrek Arrasateko klub gehienetan hartu dute esku. Eta horregatik batu dira Mondra, Ointxe!, Arrasate Atletiko taldea eta lehengo Pedrusko futbol taldea, hain zuzen, luengotarren omenaldia prestatzeko.

Bihar Mojategiko zelaian egingo duten omenaldia, baina, Mari Carmen Gabaraini dago bereziki zuzenduta, hamahiru seme-alabaren ama, eta 1981ean hil zen Bernardino Luengoren emaztea. Haiek izan ziren familia kirolzale horren erreferente –Bernardi-

BETERANOEN PARTIDUAK

Hala, 11:30ean hasita bi futbol partidu izango dira: lehenengoan, luengotarrek osatutako taldeak Pedruskoko jokalaririk ohien kontra jokatu dute; ondoren, Mondra-ko emakumezko beteranoek osatutako taldeen txanda izango da. Luncha egingo da ondoren.

> ERRUGBIA

Errugbi Tag Txapelketa
egingo dute, genero
berdintasunaren alde

Errugbian jokatu nahi duten guztiendako egongo da lekua bihar, zapatua, Mojategin, ARTko lagunek antolatuta duten genero berdintasunaren aldeko Errugbi Tag Txapelketan (16:30).

Errugbi tag delakoa kontzeptu berria da, kontaktu fisiko barik egiten den jokoa. Trebetasuneko kirol azkarra da, modu adiskidetsuan zein lehiakorrean praktikatzeko egokia. Izenematea txapelketa aurretik egingo dute.

ATLETISMOA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Maialen Axpek Euskadiko
errekorra ondu du Anoetan

X.U. > ARRASATE

Joan den astean egin zuten Euskadiko atletismo txapelketa, eta pertikarekin salto bikaina eginda (3,66 metro) Maialen Axpek Euskadiko errekorra ondu zuen –Estatuko urteko marka onena–. Lore Marrek ere salto ona egin zuen (3,50), kontuan izanda denboraldi hasiera dela; zilarra jantzi zuen.

Urrea eta zilarra eskuratu zituen, baita ere, Oihane Urtzelaik (luzera saltoan 5,05; salto hirukoitzean 11,44); 4x100eko erreleboan ere azkarrenak izan ziren Atletiko Kanpanzarko neskek. Gizonezkoetan, aipatzekoa da Iñigo Uribarrenek salto hirukoitzean egindako marka (13,73). Marka horiekin Espainiako txapelketan izango dira.

zaldibar

EMAITZAK

Betrayer-Iritzitu	3-3
Abokajarro-AT Celaya	6-4
Dribling-Lasagabaster	2-1
McAwenDauen-Dublin	3-1

PARTIDUAK

Maiatzak 15, zapatua	Epaileak
10:30 AT Celaya-Dublin	Antolatzaiz.
11:30 Dribling-Betrayer	Antolatzaiz.
12:30 Abokajarro-McAwenDauen	Antola.

Maiatzak 16, domeka	Epaileak
12:30 Iritzitu-Lasagabaster	Antolatzaileak

SAILKAPENA (A TALDEA)

	P	J
1. Abokajarro	3	1
2. McAwen Dauen	3	1
3. Dublin	0	1
4. AT Celaya	0	1

SAILKAPENA (B TALDEA)

	P	J
1. Dribling	3	1
2. Iritzitu	1	1
3. Betrayer	1	1
4. Lasagabaster	0	1

Hutsetik hasita,
batzuek ederto
ekin diote fase
berriari

Liga erregularreko txapelkunak saria izaten badu ere, hurrengo fase erabakigarrian ez du aparteko eraginik, eta talde horrek berriro hasi behar du hutsetik lanean.

Hala, fase berriko aurrealdeko postuetan sailkatu ez ziren taldeetako batzuek bikain hasi dituzte final-laurdenak; ezuste bat baino gehiago egon dela, alegia. B multzoan baino gehiago, A multzoan egon dira ezuste horiek. Izan ere, Dublin oso indartsu ibili zen liga erregularrean, baina azken orduan sailkatu zen McAwen Dauen taldearen aurrean galdu egin dute asteburuan (3-1). Eta ligan txarto ibili barik fase berria bikain hasi duen beste talde bat Abokajarro da, oraingoz A multzoko lider. Hau, baina, hasi baino ez da egin.

C DRAME
IGARLEA - MEDIUMA

Edozein arazo konpontzen dut, nahiz eta zaila izan: maitasuna, lana, arazo familiarra...



672 55 14 44
945 10 94 03



> SPINNINGA

Gaur egingo dute,
Musakolako jaien
barruan, spinning saioa

Gaur, egubakoitza, egingo dute, 17:30ean hasita, *San Isidro spinning master class, egizu festa!* saioa. Hala, AUKEAkoek bat egin nahi dute Musakolako jaietan, baina kirola egiteko proposamen batekin; izan ere, ondoren egongo da biharamuna izateko astia.

Spinningeko saio horretan 55 lagunendako tokia izango da eta kiroldegi kanpoan egingo dute.

ZIGARROLAKO JAIAK 2010

ARRASATE

Maiatzak 14, egubakoitza, Erretiratuen Eguna

Egun osoan kohete jaurtiketa.

- 10:00 **Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa**, jaiak hasi direla iragartzeko.
- 10:15 **Haurrentzako kirol-jokoak** auzoko eskoletan.
- 11:30 **Danborrada**, Arizmendi ikastolako umeekin.
- 11:30 **Meza Nagusia** San Isidro elizan.
- Ondoren, abesbatza eta herritarrentzat luncha San Isidro elkartearen.
- 17:00 **Herri merienda** auzoko haur guztientzat.
- Gazteendako jolasak**. Gazte txokoan.
- 17:30 **SPINNING MASTER CLASS**, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean. Monitore adituak. Doan eta opariak parte hartzaileei.
- Dutxak kiroldegian.
- 17:30 **Pintxo dastaketa**, EKINEk antolatuta, auzoko herri eskolan.
- 17:30 **Ikurrina igotzea**. Buruhandiak, kilikiekin eta gaitariekin batera. Alkatetzatik gozokiak botatzea.
- 19:30 **Auzoko erretiratuentzako jai-afaria** Al-Andalus kultura elkartearen.
- 23:00 **Rock kontzertua**: LINED eta ANGER. San Antolin plazan.
- Berbena** bat San Isidroko eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
- 00:00 **BER-TA-RA**

Maiatzak 15, zapatua, San Isidro eguna (Koadrilen Eguna)

Egun osoan kohete jaurtiketa.

- 10:00 **Eguzki eta eguraldi ona.**
- 11:30-13:30 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.
- Gazteentzako patata tortilla lehiaketa.**
- 12:00 **Kempo erakustaldia**. Ziar-Ola elkartearen ondoko plazan.
- 12:00 **Umeendako Asto jaia**, auzoko herri eskolaren inguruan.
- Herri txikiteoa**, gaitariekin alaiturik. Erretiratuen etxeko tabernetatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.
- 13:30 Mundu osoko kategorian, **Urrezko Astokiloak** eman eta jartzea.
- 14:00 Baserritarrek euren zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.
- 15:00 **Herri bazkaria** San Isidro eliza ondoan Musakolako txarangak alaituta.
- 17:00 **Herri kalejira.**
- 17:00-20:00 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.
- 18:00 San Isidro **sokatira** sari nagusia.
- 19:00 Arrasate Musika Eskolako Banda Txikiak eta talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute Santa Teresa elizan.
- 19:30 **Buruhandiak** gaitariekin batera.
- 23:00 **Rock kontzertua**: LOS CRETINOS eta BITTER-HONEY.
- Berbena** San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
- Gauerdian** Hainbat **moda-ikuskizun auzoko pertsonaia xelebreenekin.**

Maiatzak 16, domeka (Pobre de mi)

- 10:00 **Eguzki eta eguraldi ona.**
- 11:30-13:30 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.
- 11:30 **Gimnasia erritmiko** erakustaldia Musakolako kiroldegian.
- 12:30 **Txikiteoa**, Ardoa Barrura txarangarekin alaituta.
- 18:30 **Otxote Txorbelak** Musakolako tabernetan zehar **txikiteoa** girotuko du kantuan.
- 18:30 **Kalejira** Ardoa Barrura txarangarekin, betiko lekuetan.
- 22:30 **Azken traka Paseo maritimo-an.**
- Suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera, **Datorren urtera arte.**

VIRGINIA ile apaindegia • **ARIGARA** iturgintza • **ARGI PLASTIK** • **AZK**
BERANGO dekorazioa • **BEVERLY** taberna • **EGUREN** arraindegia
ILUNA taberna • **IMANOL** iturgintza • **IOSU** taberna • **JEY JULLIVER** taberna
JOMA • **KORTABARRIA** harategia • **ESTRELLA** taberna • **LIRAIN** ile apaindegia
MENETA taberna • **MUSAKOLA** elektrizitatea • **MUXA** gozoak
TXINATO taberna • **ZIORLA** taberna • **GAINDEGI** jatetxea

ONDO PASATU JAIETAN!

ONDAREA > BASERRIA

Eduiegiren babes-arauak aldatuko dituzte AHTrekin bateragarri egiteko

San Kristobalgo baserria kultura ondasun deklaratu duen dekretua aldatzeko espedienteari hasiera eman dio Jaurlearitzak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Eusko Jaurlearitzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Eduegi baserria monumentu izendapenaz kultura ondasun deklaratu duen dekretua aldatzeko espedienteari hasiera eman dio.

Urtarrilaren 27ko 16/2004 Dekretuaren bitartez monumentu kategoriako kultura ondasun izendatu zuten San Kristobal auzoko Eduegi baserria, eta haren babes-araudia ezarri zuten. Bada, Kultura Sailari bidalitako idatzi baten, baserriaren babes-araudia aldatzeko eskaera egin dio Euskal Trenbide Sareak, "kultura ondasunaren babesa eta Euskadiko trenbide sare berria (*Euskal Y-a*) bateragarri egiteko asmoz.

Hala, Euskal Trenbide Sareak egindako eskaera baloratu ondoren, babes-araudiaren 9. artikulua berriaz proposatu dute eta Kultura, Gazteria eta Kirol sail-



Eduegi baserria VII. mende hasierakoa, gotiko-berpizkunde garaikoa.

GOIENKARIA

buruordeak ebazpen bidez hasiera eman dio dekretua aldatzeko espedienteari.

ALDAKETA 9. ARTIKULUAN

16/2004 Dekretuko III. eranskinean finkatzen dira baserriaren babes-arauak eta horien 9. artikuluan debekatutako esku-hartzeak. Hain justu ere, honakoa debekatzen du: "Inguruan esku-hartzea, baserria erraz ikustea eragotziz edo bere ingurua andeatuz; eta hiri-altzari eta bide handi-

ak ezarriz. Baserriko inguruneak landa itxura mantendu behar du".

Ebazpen berriak, berriz, 9. artikulua honela idaztea proposatzen du: "Baserriaren ikuspegia murrizten duten edo ingurunea hondatzen duten esku-hartzeak, hiri-altzariak eta bide handiak barne. Dena den, onargarritzat joko dira interes orokorreko bide-azpiegiturak, betiere eskura dauden ingurumen-teknika onenak aplikatuz aski neurri zuzentzaileak sartzen badira, besteak beste

eragindako ingurunearen paisaia lehengoratzeari buruzko proiektua idaztea, honako alderdi hauek jasoko dituena: lurperatutako uztarri bat exekutatzeko; dardarak saihesteko lubaki barrubete bat exekutatzeko; hala badagokio, lehengo sarbidearen antzeko trazadura izango duen bide berri bat exekutatzeko, behar bezala integratuta eta behar diren bertako larre eta zuhaitzak landatuz. Baserriko inguruneak landa itxurari eutsi beharko dio".

Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita 20 eguneko epea zabalduko dute alegazioetarako.

UDALAK, ALEGAZIOA

Udal arduradunek alegazioa prestatzen dihardute, Jaurlearitzaren erabakiarekin ez daudelako ados. Mikel Elkoroborezibar Kultura Ondare batzordeburuak hau esan du: "Ez dugu ondo ikusten baserriaren babes-arauak aldatzea; izan ere, Eduegi moduko baserriak erabateko babesa behar du duen balioagatik. Alegazioa prestatzen dihardugu eta epea zabalitzen dutenean aurkeztuko dugu".

BASERRIKOAK, KEZKATUTA

Eduegiko Pilar Garitanok hau uste du: "Garrantzi handiagoa ematen zaio etxeari etxe barruko-ei baino". Azaldu du AHTren egungo trazatua, etxearen beheko aldeetik doana, aurrekoa baino –goiko aldetik zihuan– "askoz kaltegarriagoa" dela eurentzat zein auzoarentzat. Bestalde, azpimarratu du kezkatuta daudela: "Ez dakit ze bizi kalitate izango dugun trenarekin", esan du. Eta gehitu du: "Desjabetzan ere pentsatu dugu. Etxea erakundearen esku geratuko litzateke eta guk, behintzat, kalte-ordaina jasoko genuke. Ez da batere erraza argitasunez pentsatzea..."

AUZOAK > JAIK

Asentsio jaiak asteburuan Zubiaurren eta Martokon

Domekan meza egongo da San Migel baselizan

M.B. > BERGARA

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, askotariko ekitaldiak egongo dira Zubiaurre eta Martoko auzoetan, Asentsio jaien barruan. Bihar, zapatua, salda eta txori-

zoa emango dute 11:00etan Zubiaurren. 12:00etan herri txikiteoa egongo da eta 16:00etan, mus txapelketa. 18:00etan, berriz, buruhandiak egongo dira eta bukatu eta gero, San Migel-pe

elkarrekin txokolata emango die bertaratzen direnei. 19:00etan toka txapelketa egongo da eta 20:00etan, txikiteoa. Egunari amaiera emateko, 23:00etan dantzaldia egongo da.

Domekan diana joko du Udal Txistulari Bandak, 09:00etan. Ordu berean txokolata jana egongo da eta gero, San Migelera oinez igo ondoren, meza entzuteko aukera ere egongo da.

Asentsio jaietako amaiera emateko, tute txapelketa egongo da, 16:00etan.

JAIK > MENDEKOSTEAK

Pazkoetan ikurrina balkoian jartzeko dei egin dute

M.B. > BERGARA

Pazkoetan balkoian ikurrina jartzeko dei egin du Bai Euskal Herriari taldeak.

Herritar guztiei egiten diete dei "gure ikurra den ikurrina" balkoian jartzeko maiatzaren 21ean hasi eta 25era bitar-

tean. Hori horrela izanik, ikurrinak jarriko dituzte salgai sei eurotan herriko hainbat lekutan: Bolu, Arrano eta Pol-Pol tabernetan eta Konde Panaderokua –Burdilatan eta Espoioian– eta Mila okindegietan, hain justu ere.



Raizabal gozotegia

1.908tik zuekin
eskerrik asko guztioi

eta ondo pasau jaixak!

Artakale 9 Tel.: 943 76 11 83 / Bidekurutzeta 20-22 Tel.: 943 76 12 19



Kosta ala kosta udaleku ibiltaria Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldean barrena egiten dute; irudian, iazko udalekua. GOIENKARIA

AISSIALDIA > UDALEKUAK

Jardunen udako udalekuetan izena eman daiteke oraindik

'Kosta ala kosta' udaleku ibiltaria eta Askizun egonaldia antolatu dituzte, uztaierako

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Jardun elkarteak Arrasateko Txatxilipurdi eta Aretxabaletako Loramendi elkarteekin batera antolatutako *Udako abenturak* udalekuetan izena emateko epea luzatu egin dute. Hori horrela, izena emateko azken eguna hilaren 21a izango da.

Ekimen horren barruan eskaintza bikoitza egiten dute

euskara elkarteek: batetik, *Kosta ala kosta* udaleku ibiltarian -Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldean barrena- eman daiteke izena. Uztaieraren 5etik 16ra izango da eta 14 eta 16 urte arteko gazteei zuzenduta dago; bestetik, Askizuko (Getaria) udalekuan ere eman daiteke izena. Uztaieraren 1etik 23ra bitartean izango da eta astebeteteko hiru txanda

egongo dira. Aipatzekoa da 2000. urtean jaiotako hurrek ere joateko aukera izango dutela.

Izema emateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 76 36 61 zenbakira.

KAMISETAK SALGAI

Jardunek umeendako Jarduntxo panpinaren kamisetak jarri ditu salgai. Kamisetok Javi Vicentek egindako irudia daramate eta 6 euro balio dute. Jardunen bulegoan eskura daitezke eta egubakoitzetan jolasleku ibiltarietan.

oharrak

HITZALDIA

> **Zaintzailea nola zaindu azalduko dute bihar, zapatua**

Cuidado del cuidador delako hitzaldia egingo du bihar, zapatua, 17:00etan, Blanca Gartzia adituak, Jesusen zerbitzarien egoitzan. Gero, Geriatria Laguntzaile diplomak banatuko dituzte Caritaskoek.

UDALA

> **Labegaraieta kiroldegiko taberna lehiaketara atera du Udalak**

Labegaraietako kiroldegiko instalazioei erantsitako tabernaren ustiaketa eta haren kirol esparruen kontrol eta garbiketa kontratatzeke deialdia egin du. Eskaintzak erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira hilaren 26ko 13:00ak baino lehen. Lizitazio oinarria dira urteko 15.690 euro, BEZa kanpo. Baldintzak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta www.bergara.net helbidean.

UDALA

> **Adin txikikoekin lan egiteko zerbitzua kontratatzeke deialdia**

Udala kontratatzeke da adin txikiko eta gazteen inguruan egon daitezkeen arrisku egoerei aurre hartzeko zerbitzua. Eskaintzak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira hilaren 26ko 13:00ak baino lehen. Lizitazio oinarria dira urteko 53.450 euro, BEZa kanpo. Baldintzak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta www.bergara.net helbidean.

JAIALDIA

> **12-14 urte artekoendako jaialdia bihar Zabalotegin**

Udalak antolatu du eta izango da 18:30-21:30 orduetegan.

MATRIKULA

> **Musika Eskolak zabaldu du 2010-2011rako matrikula epea**

Maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik. Instrumentuak ikasteko eta musika eskoletarako eman daitezke izena. Izema emateko edo informazio gehiagorako jo Musika Eskolara edo deitu 943 76 57 80 zenbakira, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 orduetegan.

HITZALDIA

> **Baserriaren jatorriaren gaineko hitzaldia hilaren 29an**

Baserriaren jatorria eta gaur egun delako hitzaldia egingo dute hilaren 29an, 12:00etan, Pol-Pol tabernan. Hizketaldia antolatu dute Garmendia Ardoek.

ZERGAK


> **Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik**

Borondatezko epea da ekainaren 30era arte. Egun horretatik aurrera errekarguz kobratuko da. Ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxearen bidez kobratuko zaie. Helbideratu gabe dituztenek etxean jasoko dute datozen egunotan ordainketa egiteko behar duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegoetatik pasa daiteke ordainketa egiteko. Agiria maiatzaren 31 baino lehen jaso ezan, kontu-hartzailetzara jo.

ZOZKETA

> **Ipintzako ikasleen ikas bidaia-ko zozketako hiru sari, emateke**

Emateke geratu dira 403, 351 eta 858 zenbakiei dagozkien saskiak. Saskiok eskuratu ahalko dira Ipintzan (943 76 31 42), hilaren 28a baino lehen.



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei!

Zurradero 6, behea

Tel.: 943 76 70 67 Poltsikokoa: 607 48 71 19

Garaje Murillo

Auto konponketak orokorrean

Pentekoste jai zoriontsuak bergarar guztioi!

Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84



> ZIKLISMOA

Mikel Aristi protagonista mendiko kriteriumean

Sumofic-Lokatzako Mikel Aristi protagonista izan zen joan den asteburuan korritutako mendiko kriterium lasterketan. Bergarako lehenengo izan zen lehenengo etapan, eta bigarrenetan taldekideek oso ondo egin zuten lan lideraren bizkarra zaintzeko, talde indartsuen aurrean. Hala, itzulia bigarren postuan amaitu ahal izan zuen Aristik.

> ESKUBALOIA

Soraluce BKE garaipen bila doa Trapagaranera

Joan den astean oraindik lider dagoen Egiaren kontra irabazi ostean, igoera fasean bigarren postura salto egin duen Soraluce Bergara azkenaurreko lekuan dagoen Trapagaran taldearen kontra jokatzera joango da bihar arratsaldean (16:30) Bizkaira.

> FUTBOLA

Bergarako Real-zaleak Vila-realen kontrako partidura joango dira

Bergarako Real-zaleak taldea Anoetan izango da Vila-realen kontrako partiduan, eta ondoren bazkaria edo afaria egingo dute sagardotegian (30 euro). Maiatzeko azken asteburuan izango da, eta sarrerak Realak oparitutako ditu. Izene-matea, Avenida tabernan.

PILOTA > MENDEKOSTE JAIALDIA

Buruz burukoa 23an eta Irujo 25ean

Hilaren 23ko jaialdian buruz buruko txapelketa barruan lehiatuko dira Xala eta Arretxe II.a pilotariak

25eko jaialdian, berriz, Irujok eta Laskurainek Titin eta Pascual izango dituzte kontrario

XABIER URTZELAI > BERGARA

Mendekoste jaiak pilota hitzordu ederrekin datoz. Hilaren 23an (17:00) profesional mailako hiru partidu jokatu dituzte Bergarako pilotalekuan. Hasteko, Aritz Lasa eta Arruti bikoteak Iduate eta Eulate izango dituzte aurrean. Partidu nagusia, berriz, buruz buruko txapelketa barrukoa izango da: Xala eta Arretxe II.a aurrez aurre.

Jaialdiaren hirugarren partiduan, berriz, Apezetxeak eta Larrinagak Ongairen eta Galarza VI.aren kontra jokatu dute.

IRUJO HILAREN 25EAN

Hilaren 25ean (17:30) izango da jaietako bigarren jaialdia. Eskuz binaka jokatu dute Olazabalek



Aurreko koadroetan Irujoren eta Titinen arteko lehia izango da.

NIREBLOG.COM

eta Goñi III.ak Iduateren eta Merinoren kontra. Eta ondoren izango da partidu nagusia: Irujo-Laskurain eta Titin-Pascual aurrez aurre.

BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Bestalde, joan den martitzenean jokatu zituzten Bergara Hiria txapelketaren lehenengo finalerdiak. 22 urtez azpikoetan Antso-

tegi-Lana bikoteak 22-6 irabazi zuten Rezustari eta Lukini, eta dagoeneko finalean daude.

Senior mailako partiduan, berriz, Ricok eta Jauregik 17-22 galdu zuten Larrañagaren eta Huntoriaren kontra. Lau pilotarien artean azken horrek partidu biribila egin zuen, oso seguru jokatu, eta etorkizun polita izan dezakeela erakutsi zuen.

PIRAGUISMOA

Gipuzkoako txapelketan Beti Busti hirugarren

Patxi Ugalde podiumeko lehen postura igo zen kadete mailan

X.U. > BERGARA

Joan den astean egin zuten, Bidasoako uretan, Gipuzkoako txapelketa, eta Beti Busti lau ordezkari izan zituen domekako saioan –guztira 70 piraguista batu ziren.

Gaszte mailan Josu Mentxakak brontzezko domina eskuratu zuen, eta kategoria berean Iñaki Usabiaga seigarren izan zen. Kadetetan, berriz, Beti Bustiko bi ordezkariak podiumera igo ziren. Patxi Ugalde, beste behin, ondo nagusitu eta Gipuzkoako txapelkun izan zen, eta hirugarren sailkatu zen Beñat Lizarralde. Hala, emaitza horiekin Bergarako taldeka hirugarren izan ziren.

Zapatuan, berriz, kategoria txikitakoak lehiatu ziren, eta hor, Ana Usabiaga, Jokin Labaien, Asier Gonzalez eta Gorka Markez lehiatu ziren.

ASTEBURUAN CORUÑAN

Gipuzkoako txapelketan lehiatu ostean Bergarako piraguistak Coruña joango dira asteburuan, Espainiako kopako laugarren eta azken txapelketan parte hartzera.



Bergarako San Antonio kalean kokatutako eraikuntza 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak esleopitzeko, eskaintzarak aurkibetako epaia zabalik.

Garbitza Piztas eta eskaintza onak www.etorlur.net oraindik dago!

Eskaintzarak aurkibetako epaia: Maiatzaren 30tik ekainaren 30ra.

Itxerietara berrazuldu eta baldintzak bete ezean ezak zure eskaintzara. Etorluren buruagaitza.



Informazio gehiago:

 943.24.85.50

 www.etorlur.net

 etorlur@gipuzkoa.net

LAGUN GARAJEA

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

Ondo pasau jaixak!

Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20

KONTZERTUA > XXII. UDABERRIKO KONTZERTUA

Udaberriko kontzertua egingo dute bihar Musika Eskolako ikasle eta irakasleek

Kalejiraren ostean hasiko da kontzertua, eta 21:00etan herri afaria izango da egindakoa ospatzeko

NEREA MENOR > BERGARA

Musika Eskolak antolatutako udaberriko kontzertuak 22 urte ditu aurten. Eskolan egiten den lana erakuste aldera, 500 ikasle askotariko piezak erakutsiko dituzte. Bihar izango da, 19:00etan, Udal Pilotalekuan. Sarrerak dagoeneko salgai daude eta kontzertu egunean ere salduko dituzte, hasi baino ordu bete lehenago, pilotalekuan.

'IMAGINE', GUZTIEK BATERA

Aurtengo berritasun gisa, guztiek batera John Lennonen *Imagine* abesti ezaguna joko dute. "Kantu moderno delako deritzogu, gaur



Musika tresnen arabera sailkatuta joko dute ikasleek eta bukatzeko guztiek batera jo eta abestuko dute.

GOIENKARIA

egungo musika gurera ekartzeko aukeratutakoa", adierazi digu Marije Ugalde eskolako zuzendariak. Kontzertuan zehar sorpresak egongo direla ere esan digu.

"Kontzertuaren ostean, ikasle, guraso, irakasle eta herritarrok afaria egingo dugu Udal Pilotalekuan", azaldu digute eskolan. Afaldu ondoren kantu

txapelketa egongo da; hori izango da aurtengo bigarren berritasuna, eta arrakasta handia izango duela uste dute Musika Eskolako arduradunek.

ANTZERKIA

'Ate joka' antzezlan gaur Zabalotegin

N.M. > BERGARA

Gaur bertan izango da gurean *Ate joka* antzezlan. Zabalotegi aretoan izango da, 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan egongo dira eskuragai.

Begoña Bilbaoren eskuetik dator kigu antzezlan dibertigarri hori. Bikoteen elkarbizitza erraza izaten ez dela erakusten digu zuzendariak, hiru lagun arteko harremanak kontatuta.

ANTZEZLE EZAGUNAK

Protagonistak hiru aktore ezagun dira: Iker Galartza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar. Askotan ikusi ditugu antzezle horiek telebistako saioetan.

Oraindik oholtza gainean ikusterik izan ez dutenek aukera aproposa izango dute gaur gauean.

EMANALDIA > ORFEOI TXIKI ETA GANBARA TXIKI

'Jostailugilea' ipuin musikalaren bi emanaldi egingo dituzte etzi, domeka, Zabalotegin

Oñatiko arrakastaren ostean Bergaran aurkeztuko dute ipuina; 11:00etan eta 13:00etan izango dira emanaldiak

N.M. > BERGARA

Bergarako Orfeoi Txiki eta Oñatiko Ganbara Txiki taldeen eskuetik *Jostailugilea* ipuina (Josu Elberdin) ikusi ahal izango dugu.

Bi zati izango du ikuskizunak: lehenik, marrazki bizidun eta filmetako kantuak abestuko dituzte gaztetxoek. "Bitartean, haien irudiak proiektatuko dituzte abesti bakoitza ze filmi dagokion jakiteko", adierazi du Aitor Biain antolatzaileak.



Jostailugilea, otsailean Oñatin egindako emanaldian.

JOSETXO ARANTZABAL

IPUIN IKUSGARRIA

Bigarren zatia ipuinaren kontaketa izango da. Gaztetxoak jostailugileak egiten dituen jostailuak izango dira. "Argi efektue-

kin-eta agertu eta desagertu egingo dira. Oso ikusgarria izango da", dio Biainek. Ipuinean mago bat ere azaltzen da, eta benetako magia ikusi ahal izango dugu.

HIZKUNTZA > EUSKARAREN JATORRIAREN V. BILTZARRA

Juan Martin Elexpuru hizlari Arteagan

Iruña-Veleiaren egoeraren gainean informazioa emango du bergararrak

N.M. > BERGARA

Bihar egingo dute euskararen jatorriaren V. biltzarra Bizkaiako Arteaga herrian. Bertan izango da Juan Martin Elexpuru, Iruña-Veleiaren gainean berba egiten. "Iaz ere parte hartu nuen bertan eta urte honetan Iruña-Veleian gertatu diren beritasunak azalduko ditut".

EPAIKETA

Indusketa lanetan ibili den Lurmen enpresak, enpresaren aldeko 15 txosten aurkeztu ditu epaitegian eta Lurmenen aur-

ka zituzten hiru kereiletatik bi artxibatu ditu epaileak. "Arabako Aldundiak Euskal Herriko Unibertsitateari eman nahi dio 10 urteko ustiapen eskubidea, oraindik epaiketa bukatu gabe dagoenean. Oso larria iruditzen zaigu", dio Elexpuruk.



Juan Martin Elexpuru.

GOIENKARIA



1942a ezkerro

Aro berriko
sukalderako tresneria

San Juan auzoa
BERGARA

Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39

Web orria: www.ibili.net

Zorionak bergararroi!



INGURUMENA > AURKEZPENA

Energia neurritz erabiltzeko konpromisoak

Agenda 21 programan parte hartu duten neska-mutikoak udal ordezkariekin bildu ziren

Herriko ikastetxe guztietako umeez energiaren erabilpenaren gaineko ekintzak egin dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Eskolako Agenda 21 programaren barruan landutako eta ateratako ondorioak aurkezteko, herriko ikastetxeetako ikasleen ordezkariak udal arduradunekin bildu ziren eguaztenean. Alkateari, Zerbitzu eta Azpiegitura, Nekazaritza eta Ingurumen batzordeetako zinegotzi eta teknikarietara energia neurritz erabiltzeko atera dituzten proposamenak aurkeztu zizkieten.

Gainera, euren aldetik, energia aurrezteko "ahal duten guztia" egingo dutela esan zuten, eta 12 konpromiso aurkeztu zituzten (ikus ondoko taula).

Elkar Hezi-Mikel Aozaratzako, Txantxiku ikastolako, Errekalde herri eskolako eta Zuazola-Larrañako neska-mutikoek parte hartu dute Eskolako Agenda 21 programan.

Askotariko ekintzak egin dituzte: batzuk ikastetxe barruan, euren jokoerak eta eskolako funtzionamendua aztertze; eta beste batzuk herriko egoera ezagutzeko egin dituzte.

IRTEERA ETA EKINTZA BEREZIAK

Bestalde, ikastetxean eta herrian egin dituzten ekintzekin batera, hainbat irteera eta ekintza berezi egin dituzte energiaren gaia hobeto ezagutzeko: Olateko zentral hidroelektrikoaren funtzionamendua ezagutu zuten, Badaia-ko parke eolikoan egon ziren energia berriztagarrien ezaugarriak ikasteko, eta, Cosmodisea programaren bidez, auto ekologikoak diseinatu dituzte, besteak beste.

Gainera, euren iritziz energia aurrezteko herrian egin behar-ko liratekeen aldaketen berri



Herriko ikastetxeetako neska-mutikoek euren azterketaren berri eman zieten udal arduradunei.

MIREIA BIKUÑA

eman zuten. Besteak beste, hau xe eskatu zieten: Gabonetan argidun apaingarririk ez ipintzea; kaleko argiteriako sentsoreak kontrolpean edukitzea; argitasun txikia dagoen tokietan argiztapen handiagoa ipintzea; erai-kin publikoetan eta kale argiterian kontsumo txikiko bonbillak ipintzea; semaforoei plakak ipintzea; bidegorri sarea hobetzea; eta Lanbus eta garraio publiko merkatu eta zabaltzea.

HERRITARREN IRITZIA

Herri mailako diagnostia egiteko herritarren artean galdeketa egin zuten, eta bost ondorio atera zituzten: informazio falta dagoela; garraio publikorik ez dutela erabiltzen; argiaren eta gasaren prezioak garestiegiak direla uste dutela; energia aurrezten ahalegintzen direla; eta kontsumoa geroz eta handiagoa dela.

IKASLEEN KONPROMISOAK

> Tresna elektrikoak neurritz erabili, eta erabili ondoren guztiz itzaliko ditugu.

> Tresna berriak erosterakoan, zein energia mota behar duen eta zenbat kontsumitzen duen kontuan izango dugu.

> Argiak beharra dagoenean bakarrik piztuko ditugu.

> Kontsumo txikiko bonbillak erabiliko ditugu.

> Gure ikastetxe eta etxeetan leiho eta atea itxiko ditugu berogailua piztuta dagoenean, eta hotzik ez dagoenean ez dugu piztuko.

> Autoaren ordeze, oinez edo bizikletan ibiltzen ahaleginduko gara, bidegorri sarea erabilita.

> Garraio publikoa erabili eta bultzatuko dugu.

> Paper eta ontzien kontsumoa murriztu egingo dugu. Ondoren, berrerabili, eta azkenik, birziklatu egingo ditugu.

> Berrerabil daitezkeen pilak erabiliko ditugu ikastetxean.

> Ikastetxeko energia kontsumoaz ohartaraziko ditugu langile, ikasle eta gurasoak, eta oportretan guztia itzalita utziko dugu.

> Ikastetxeko panelei jarraipena egingo diegu, haien errendimendua ahalik eta handiena izan dadin.

> Fotokopiak bi aldeetatik egingo ditugu.

AISIALDIA > UDALEKUAK

326 ume ibiliko dira udaleku irekietan

laz baino 28 ume gehiagok eman dute izena; igoera, batez ere, 8-9 urtekoetan egon da

M.B. > OÑATI

Uztailaren 1etik 30era egingo dituzten udaleku irekietan 326 neska-mutiko ibiliko dira. Txaloka ludotekak eta Udaleku Euskara Zerbitzuak egingo dituzten udalekuetan iaz baino 28 ume ibiliko dira (2009an, 298).

Antolatzaileak pozik daude erantzunarekin, eta, batez ere, 8 eta 9 urteko-2001ean jaiotakoak-umeen izenemateen gorakada azpimarratu dute: "2009an 8 eta 9 urteko 19 neska-mutiko ibili ziren udalekuetan eta aurten 50 izango dira. Igoera oso nabarmena da, eta harrিতa gaude".

Bestalde, adinka, 2005an jaiotakoak dira ugariak; hain zuzen ere, 4 eta 5 urteko 67 ume.

Udaleku irekietako neska-mutikoak 10-11 pertsonako taldeetan banatuko dituzte eta taldeek begirale bana izango du. Uztailaren 1etik 30era hiru orduko jarduna egingo dute egunero, 10:00etatik 13:00etara.

PRESTAKUNTZA IKASTAROA

Udalekuetako begiraleei dago-kienez, 50 aurkeztu ziren antolatzaileek egindako deialdira. Euren curriculumak eta tituluak aztertu ondoren, 33 begirale eta laguntzaile bat aukeratu dituzte. Guztiek prestakuntza ikastaroa egin behar dute, bi zapatutan: hain zuzen ere, maiatzaren 29an 10:00etatik 13:00etara eta ekainaren 26an 10:00etatik 12:00etara.



Iazko udalekuetako neska-mutikoak plazan egindako jaialdian.

I.A.

ELKARTASUNA

Palestinaren aldeko hainbat ekimen

M.B. > BERGARA

Debagoieneko Askapena talde internazionalistak Palestinaren hondamendiaren eguna gogoraraziko du bihar. Israel-ek Palestinako lurra okupatu zituela 62 urte beteko dira bihar. Horren harira, Nakba eguna ospatuko dute. Goizean hainbat ekintza egingo dituzte plazan; besteak beste, Palestinaren okupazioaren gaineko dokumentala emango dute.

Bestalde, hilaren 20an bideo emanaldia egingo dute Guria tabernan; eta hilaren 25era arte Palestinaren gaineko erakusketa egongo da herriko hainbat tabernatan.

KIROLA > ESKUBALOIA

Kopa txapelketako lehen jardunaldian atsedean hartuko dute Verkol Aloñako neskek

Lehen fasean Bera Bera eta Leizaranen kontra lehiatuko dira oñatiarrak; multzoko lehenak finala jokatu du

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ligan Euskadiko txapelketan jarraitzeko txartela eskuratu ondoren, kopa txapelketa hasiko dute eskubaloiko Verkol Aloñako neskek. Apiril bukaeran egin zuten zozketa, eta oñatiarrak bigarren multzoan lehiatuko dira Donostiako Bera Bera eta Andoingo Leizaranen kontra.

Kopa txapelketa aurreko aste bukaeran hasi zuten, eta oñatiarrak atsedean hartu zuten lehen jardunaldian. Aloñak gaur 20:00etan jokatu du lehen jardunaldia, Zubikoan, Leizaranen kontra; eta bigarrena, hilaren 23an Bera Berarekin.

Oñatiarren helburua lehen tokian bukatzea da. "Gure multzoan dauden taldeak maila txikiagoetan lehiatu dira. Hortaz, irabazteko moduko partiduak direla uste dugu. Horregatik guztiagatik, gure helburua lehen tokian bukatzea da, horrek emango ligukeelako finala jokatzeko



Ainhoa Unamuno jaurtiketa egiten Elgoibarren kontrako norgehiagokan.

GOIENKARIA

txartela", esan digu taldeko entrenatzaile Ainhoa Unamunok.

Finalerako sailkatzen badira, iazko garaipena errepikatu nahi dute. "Iaz txapelketa ona jokatu genuen, eta ezustean irabazi egin genuen. Ea, bada, oraingoan gauza bera egiten dugun", diote.

Dagoeneko hasi dituzte entrenamenduak, eta liga jokatu zuten jokalariek berberak izango ditu Unamunok.

SEI TALDE

Emakumeen senior mailako kopa txapelketa bi multzotan jokatu-

ko dute: lehen multzoan, Zarautzek, Elgoibarrek eta Ereintzak jokatu dute eta bigarrenean, Aloñak, Bera Berak eta Leizaranek. Itzuli bakarreko ligaxka jokatu dute (hiru partidu) eta multzo bakoitzeko talde onenak finalean elkartuko dira.

MERKATARITZA

Txanda txartela erabiliz, onurak

Beharpenak eta sariak eskuratu ahalko dituzte bezeroek

M.B. > OÑATI

Txandak, Oñatiko Dendarien Elkarteak, bezeroen fideltasuna sarituko du datozen hila-beteetan. Horretarako, hainbat promozio jarriko ditu abian.

Alde batetik, txartelarekin lortutako puntuak hamar euroko erosketa bakoitzarengatik puntu bat-txekeengatik trukatzeko aukera izango dute bezeroek. Hori horrela, 200 puntu lortzen dutenek hamar euroko txeketa jaso ahalko dute Rural Kutxako bulegoan. Promozioa baliagarria da 2011ko apirilaren 30era arte.

SARI ZUZENAK

Beste alde batetik, maiatzean, ekainean, urrian eta azaroan bost, hamar, 15 eta 50 euroko sari zuzenak banatuko dituzte. Azkenik, Madalena gasolindegian Txanda txartela erabiltzen dutenek %2ko beharpena izango dute.

> TXIRRINDULARITZA

Gazte mailako ziklista onenak bihar, Arantzazuko igoeran

Gazte mailako txirrindulariendako 42. Arantzazuko igoera egingo dute bihar. 16:30ean abiatuko dira, Natra Zahor enpresaren pareko irteeratik. Handik zuzenean gora egingo dute 9,3 kilometro egiteko.

Gazte mailako ziklista onenak bilduko dira Oñatin. Guztira, 90 bat txirrindulari. Tartean, Bergarako Sumofic eta Aretxabale-tako Dorletako Ama taldeko ziklistak, eta Iker Mugartza eta Aitor Umerez oñatiarrak.

> ELKARTASUNA

Argentinarako material bilketa eten egin dute behin-behinekoz

Argentinarako materiala biltzen duen taldeak, behin-behinekoz, bilketa etetea erabaki du. 27. edukiontzia bidaltzeko tramiteetan arazoak izan dituzte. Martitzenean bidaltzekoak ziren edukiontziko kaxa guztiak zabaldu eta berrantolatu egin behar dituzte. Hori horrela, edukiontzia ezingo dute bidali hilabete barrura arte-edo. Hortaz, tarte horretan, ez dute material gehiago batuko Bidebarrietako lokalean eta edukiontzi zurian.

> DEIALDIA

Erretiratuak bazkaria egingo dute domekan kiroldegiko kantxan

Pake Lekuk Erretiratuen Astea ospatzen dihardu. Azken ekitaldia domekan egingo dute. 12:00etan parrokiaren elkartuko dira elizkizuna ospatzeko. Jarraian, ekitaldia egingo dute kiroldegiko pilotalekuan. Herriko bi erretiratu omenduko dituzte udal arduradunekin batera, eta ondoren, Udal Musika Bandak eta Oñatzeko dantzariak emanaldi bana egingo dute. Kantxa urdinean bazkaldu ondoren, dantzaldia egingo dute guztiendako.

> JAIK

Kasablankan San Isidro jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte Kasablankan San Isidro jaiak ospatzeko. Poteoak, txorimaloak, haurrentako jolas parkea, marrazki lehiaketak, eta olagarro eta sagardo dastatzea egingo dituzte, besteak beste. 18:00etan hasiko dituzte jaiak.

Musikak ere lekua izango du. Gaur 22:30ean, Black River, Dark Code eta Methew taldeek rock kontzertua egingo dute. Zapatuan, aldiz, aretoko dantzen erakustaldia egingo da 22:30ean.

> JAIK

Auzo afariarekin hasiko dituzte gaur Murgia auzoko jaiak

Gaur hasi eta domekara arte ospatuko dituzte Murgia auzoko jaiak. Jaiei hasiera emateko auzo afaria egingo dute Asentzio elkartean 21:00etan. Bertsolariak eta trikitilariak girotuko dute afaria.

Bihar, 16:00etan kirolak, umeendako jokoak eta txokolate-jana egingo dituzte elkartean.

Domekan, jaiak bukatzeko, auzoan hildakoen aldeko meza ospatuko dute 12:00etan Asentzio ermitan, eta ondoren lancha egingo dute.

ZELAI A
OÑATI
www.zelaia.net

40
urte
elkarrekin
1970-2010



Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99



Erreforma integralak

gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Berezaio auzoa - Oñati
943 78 20 08

OSPAKIZUNA > LORAMENDI ELKARTEA

Berrikuntzaz betetako Euskerien Eguna antolatu dute biharko

'Atxabalta len eta oin' izenarekin ibilbide historiko gidatua egingo dute herrian zehar

Gaztetxoendako diskoteka egongo da pilotalekuan disko-jartzaileekin (22:30-00:30)

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Ibilbide berria hasi du Loramendi elkarteak egunotan eta bihar ospatuko duen Euskerien Eguna berrikuntzaz beteta dator.

Harrera ekitaldia egingo dute Herriko Plazan ospakizuna hasiteko (11:00) eta bertatik abiatuko dira *Atxabalta len eta oin* izeneko ibilbide gidatua egingo dutenak. Herri inguruko ibilbidea da eta lehengo kontuak ezagutu gura dituenarendako aproposa. Bien bitartean, gazteek *Xomorro xelebreen jinkana* izango dute eta umek tailerrak.

Ibilbidekoak bueltan etortakoan (13:00) mokadutxoa jango dute plazan, txalapartariak eta Basotxoko erretiratuen kantu taldeak lagunduta. Bazkaria herriko elkarteek gertatuko dute, urtero legez; aurten, baina, babarrunak beharrean okela gisatua izango da jateko, entsaladak eta ijito besoak lagun eginda.

Bazkalostea girotzeko, bertso eskolakoek gertatutako bertso fartsak kantatuko dituzte guztien artean, eta gero, jolasak egin lehengo erara. Kukubiltxo taldeak *Kukubel 2.0* ikuskizuna eskai-



Herriko trikitilariak iaz Euskerien Egunean.

M.A.

ni ostean umeei (17:00) gastronomia elkarten arteko lehenengo bolo txapelketa hasiko dute (18:00). Larrin-dantza ere egingo dute, urtero legez (19:00), eta gero kalejira (20:00).

Gazteria Zerbitzuak, ostera, diskoteka antolatu du gaztetxoendako (22:30-00:30). Pilotalekuan da eta dantzan egiteko musika jarriko dute disko-jartzaileek; gainera, opariak zozketatuko dituzte.

Egitaraua

ZAPATUA, 15

11:00 HARRERA Herriko Plazan.
11:00 IBILBIDE historiko gidatua.
11:00 JINKANA Gazte Ekimenak antolatuta, eta tailerrak.
12:30 ANTZERKIA herriko Arelarre taldearen eskutik.
13:00 MOKADUTXOA plazan, txalapartariak eta Basotxoko abesbatzak lagun eginda.
14:30 HERRI BAZKARIA.
Ostean; BERTSO FARTSAK eta JOLASAK lehengo erara.
Ostean, KALEJIRA gaitariak eta txikiteoa.
17:00 KUKUBILTZO taldeak *Kukubel 2.0* eskainiko du Arlutz osteko kantxan.
18:00 BOLO TXAPELKETA elkarten artean.
19:00 LARRIN-DANTZA.
20:00 KALEJIRA Patxaragarekin.
22:30 DISKOTEKA pilotalekuan gaztetxoendako.

JAIA > OTALA ZELAI EGUNA

Erromeria giroa gertu domekan Otala Zelai eguna ospatzeko

Urtero legez, lasterketak, animaliekin jolasak, sagardo dastatzea bertsolariekin, neska-mutikoen dantza saioak eta dantzaldia izango dira

M.A. > ARETXABALETA

Erromeria giroko jaia antolatu du Kultura Sailak Otala Zelai egunerako. Santo Domingo-maiatzak 12-hurrengo domekan ospatzen den jaiak herritar asko elkartuko ditu Aozaratzako zelaiaren inguruan; eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Euria eginez gero, jaia Iturrigorri pilotalekuan ospatuko dela iragarri dute antolatzaileek.

SAGARDOA BERTSOLARIEKIN

Azken urteotan legez, lasterketek emango diote hasiera egunari;

lehenengo, gaztetxoek lasterketek (10:00) eta gero, helduenak (11:00). Guztiak bukatutakoan sari banaketa ekitaldia egin (12:00) eta jaiari hasiera emango diote zelaiari (12:30). Ohitura da animaliekin jolasak egitea, eta han izango da Gorriti abeltzain ezaguna pottokak, oilarrak, basurdea... lagun hartuta.

Bien bitartean, paella lehiaketako parte-hartzaileak arroza gertatzen hasiko dira, eta 14:00etarako gertu izateko eskatu dute anolatzailak, gero epaimahaiko kideek proba ditzaten.

Bazkal aurretik sagardoa dastatzeko aukera izango da, trikitilariak eta bertsolariek girotuta (13:30). Bazkaria, ostera, norberak eroan beharko du, urtero legez, eta antolatzaileek aulkiak eta mahaia jarriko dituzte.

Bazkalostean dantzaldia izango da egonaldia girotzeko eta 18:00etan Leizarra dantza taldeko hainbat neska-mutikok dantza saioa eskainiko dute.



Oilarrak jolasean neska-mutikoak begira daudela, iaz Otala Zelain.

M.A.

OTALA ZELAIKO 32. HERRI KROSA

Gaztetxoek lasterketak eta helduen krosa

Otala Zelaiko krosa ez da erromeria ospakizuna bezain zaharra, baina dagoeneko 32 urte beteko ditu. Kirol Zerbitzuak antolatzen du eta egunean bertan Otala Zelai inguruan jarrirako mahaian hartuko dituzte parte-hartzaileen izenak (5 euro), eta dortsalak banatu.

Lehenengo lasterketak gaztetxoek izango dira: 10:00etan, benjaminak (400 m); 10:10ean, kimuak edo alebinak (800 m); 10:20an, haurrak (1.200 m); eta 10:30ean, kadeteak (1.600 m). Helduak (1993tik atzera jaiotakoak) 11:00etan aterako dira eta Urkuluko urtegiari buelta eman beharko diote (8.410 m). Sari banaketa ekitaldia, ostera, 12:00etan izango da zelaiari bertan.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56

Jesus Ortiz de Urbina > Leintz pastoral barrutiko parrokoa

"50 urtean egindakoarekin konforme nago; leku askotan egotea aberasgarria izan da"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Zazpi urte daramatza Aretxabaletan parroko, eta abadeen urrezko ezteiak beteko ditu uztailean. Orduantxe ospatuko du elkarteko kide dituen agustindarrekin. Elizbarrutiko gainerako abadeekin, ostera, apirilean ospatu zuen, Jose Ignacio Munilla gotzainak gonbidatuta.

50 urte bete dituzuen abade asko elkartu zineten?

27, guztiak Gipuzkoan gaude. Horietaatik hamar elizbarrutiko abadeak dira eta beste 17ak abade erlijiosoak, tartean neu.

Ospakizun polita izan zen?

Bai; meza esan genuen Donostiako seminarioan gotzainarekin eta gero elkarrekin bazkaldu. Oparitxoia ere eman ziguten.

Zu zeu arabarra zara, ezta?

Bai; gurasoak arabarrak ziren, eta ni Ekora herrian jaioa. Aita maisua nuen, eta gero Gipuzkoara etorri ginen.

Zelan hartu zenuen erabakia?

Zalantza barik, sasoi hartan samurragoa zen halako erabaki bat hartzea. Gainera, ikasketak egiteko toki aproposak ziren seminarioak eta 12 urte nituenean Oñatiko agustindarretara etorri nintzen. Bertan egon nintzen abade egin arte, 22 urterekin.

Eta behin abade izendatuta, zein izan da zure ibilbidea?

Lehenengo lau urteak Oñatin bertan egin nituen eta gero Ameriketara joan nintzen, Argentinara eta Uruguaira; 19 urte egin nituen han. Buenos Aires eta Montevideoko parrokia banatan egon nintzen. Handik bueltan, Madrilan, Bilbon, Oñatin berriro eta Zumarragan egon naiz, eta azken zazpi urteotan Aretxabaletan.

Zumarragan orain gotzain den Munillarekin egon zinen, ezta?

Bai, nik Zumarragako parrokoa nagusiko ardura neukan eta



Jesus Ortiz de Urbina, etxeko liburutegi aurrean.

M.A.

"Gure parrokian guraso gazteen taldeak indartu egin behar dira, fedea transmititzeko"

"Goztaina oso gizon ona, langilea eta bizkorra da, baina ez dut bat egiten harekin"

hura beste parrokia txikiago baten zegoen.

Eta orain gotzain izendatu dute. Zelan ikusten duzu?

Oso gizon ona da, langilea, bizkorra, beti zerbitzua emateko gertu dagoena eta laguna, baina nik ez dut bat egiten haren ildoarekin.

Leintz pastoral barrutiko arduraduna zara. Erretiroan pentsatzen duzu?

Bai. Orain dela urtebete gaitxo egon nintzen eta orduko bikarioari esan nion ordezkoan pentsatzen hasteko. Baina une txarra zen, gotzain aldaketarengatik, eta itxoiteko eskatu zidan. Nik neuk gurago dut ardurak utzi eta laguntzaile izan.

Baina abade gutxi daude.

Beste era batera antolatu behar, orduan... Arrasate eta Oñatirekin batera artzapez taldea osatzen dugu, eta, behar bada, hortik bideratu beharko da.

Gure parrokiako lehentasunik garrantzitsuena zein da?

Guraso gazteen taldeak indartu egin behar dira; fedea transmititzeko oso garrantzitsuak dira.

Zelan laburtuko zenuke 50 urteko ibilbidea?

Konforme nago egindakoarekin, nahiz eta askorik ez egin; leku askotan egon naiz eta hori oso aberasgarria izan da.



laz egindako Are-Krosaren irabazle izan zirenak.

M.A.

ELKARTASUNA > SAHARA

Are-Krosa egingo dute hilaren 23an eta dortsalak salgai daude

La Caixan eros daitezke 3 euroren truke, eta egunean bertan ere bai

Hiru lasterketa egingo dituzte herriko hainbat kaletan zehar, adinaren arabera banatuta (10:30): 8 urte artekoak; 8 eta 12 urte artekoak; eta helduak (4,5 kilometro inguru).

Lasterketa horietarako dortsalak dagoeneko salgai dituzte La Caixako bulegoan (3 euro). Eta hilaren 23an ere salduko dituzte, lasterketak hasi aurretik. Era berean, dirulaguntza jasotzen dabilta eta bi kontu zenbaki jarri dituzte herritarrek ekarpenak egiteko: Euskadiko Kutxan, 3035/0002/18/0020044679; eta La Caixan, 2010/6838/48/0200002671.

M.A. > ARETXABALETA

Herri sahararraren laguna den Aretxabaleto Iesbaa elkarteak hirugarrenez antolatu du Are-Krosa. Maiatzaren 23an egingo dute, domeka, eta sahararren giza eskubideak aldarrikatzearekin batera laguntza jasotzea du helburu krosak.

> MERKATARITZA

Bidezko merkataritza denda egongo da Hiruatxen eskutik bihar Herriko Plazan (11:00)

Loramendi elkarteak antolatutako Euskerien Egunarekin bat egingo du Hiruatxek eta bidezko merkataritzako denda jarriko du, azken urteotan legez. Herriko Plazan jarriko dute aurten eta jaiarekin batera zabaldu (11:00). Tailerrak ere jarriko dituzte umeendako.

Joan den astean, hilak 8, ospatu zen Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna, eta, duintasunez ekoiztutako produktuak saltearekin batera, herritarrek sentsibilizatzea dute helburu GKEek.

> DEIA

Leizarra musika eskolako matrikulatze epea zabalik astelehenean hasi eta ekainaren 18a artean

Astelehenean, hilak 17, hasi eta ikasturtea bukatu bitartean (ekainak 18) izango dute zabalik matrikulatze epea Leizarra musika eskolan. Arkupe kultura etxeko hirugarren solairuan dute bulegoa eta handik pasatu behar dute interesatuek (17:00-19:00).

4 urtetik aurrerako neska-mutikoendako eta helduendako musika tailerrak, dantza, instrumentuak, abesbatza... eskaintzen dituzte. Edozein argibide behar izanez gero, hara jo.

oharrak

DEIA

> **Aste bukaera pasa antolatu du Jaiki elkarteak**

Hilaren 22an eta 23an izango da, Abaltzisketan: masajeak, jolasak... Interesatuek mezu bat bidal dezatela honako helbidera: jaikielkartera@yahoo.es.

MUSIKA

> **Kanabera eta metalezko instrumentuen emanaldia hilaren 25ean**

Leizarra musika eskolako kanabera eta metalezko instrumentuen ikasleek emanaldia egingo dute hilaren 25ean, martitzena, Arkupen (18:30).

MUSIKA

> **Flauta emanaldia hilaren 26an**

Leizarra musika eskolako flautako ikasleek emanaldia egingo dute hilaren 26ean, eguaztena, Arkupen (18:30).



Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalaren garbiketak
•
Arropa garbiketak

LUR-JAUSIA > UDALAREN NEURRIAK

Aranburuzabalako lanak amaitu dituzte

Udalak 320.000 eurori egin behar dio aurre; Diputazioak eta Jaurlearitzak ez dute dirurik eman

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Aranburuzabala kaleko etxeetako atzealdean jausitako lur hegala egonkortzeko lanak amaitu dituzte. Joan den martitzenean egindako agerraldian, Pedro Lasagabaster alkateak aipatu zuen, denera, 320.000 euroko gastua ekarri diola Udalari lur-jausiak.

Azaldu zuen lehen zeuden horma eta zolarria kendu eta lurra-ri eusteko horma berria egin dela, 4 metroko altuera, metro erdiko zabalera eta 40 metro inguruko luzera duena. Horrez gain, bihurtura hirukoitzeko sarea eta altzairu galbanizatuzko eraztun sarea jarri dela ere aipatu zuen. Alka-

tearen arabera, hegalak ezegonkorra izaten jarraitzen badu ere, teknikariek diote hartutako neurriak nahikoak direla. Horren harira, inguru horretako bizilagunei "pazientzia" izan dezatela eskatu zien, "zaratak eta mugimenduak" entzungo dituzten arren arriskurik ez dagoelako.

AZTERKETA GEOTEKNIKOAK

Lasagabasterrek gaineratu zuen, era berean, Radarretik Intxaurtxuetarainoko hegal osoaren arrisku geoteknikoen azterketa eskatu dutela eta laster horren berri jasoko dutela. Horren harira, gogorarazi zuen hegal horretan parke

publikoa egiteko plana dagoela. Alkatearen esanetan, "horrela arriskuak txikitu egingo dira, eremua babestuko da eta aisialdirako oso gune txukuna geratuko da herrirako".

Lur-jausia garbitzeko eta konpontzeko lanek eta azterketa geoteknikoak eragindako gastuez gain, Udalak kaltetutako bizilagunei utzitako etxeak jantzi eta atondu behar izan ditu. Horren harira, gogorarazi behar da urtarriaren 31 ezkerko zortzi familiak egon behar izan dutela etxetik kanpo; horietatik, sei Udalaren eta Jaurlearitzaren jabetzakoak diren etxebizitzetan egon dira eta gainerakoak, senideekin. Kaltetutako etxeei azken ukituak ematen eta etxera bueltatzen ari dira familia horiek egunotan. Aseguru etxe-



Egindako horma berria 4 metro garai da.

MIRIAN BITERI

ek euren gain hartu dituzte horien konponketek eragindako gastuak.

Martitzeneko agerraldian alkatea kezkatuta agertu zen; izan ere, Jaurlearitzari eta Diputazioari diru ekarpena egin dezatela eskatu badie ere, oraindik ez du erantzunik jaso.

KRITIKAK EB-BERDEAK TALDETIK

Bestalde, lanen amaieraren harira, Ezker Batua-Berdeak taldeak azken hilabetotan Udalak egin duen esfortzua goraiatu badu ere, ekidin zitekeen lur-jausia zela dio. E Planak horrelako lanak egitea onartzen duela aipatu du.

ERRETIRATUAK > OLAZAR ELKARTEA

Burgin ederto ibili ziren erretiratuak

M.B. > ESKORIATZA

Joan den maiatzaren 1ean, herriko erretiratuak Burgin izan ziren, almadien jaitziera ospetsua ikusten. Jakinarazi digute 60 lagun inguruk parte hartu zutela irteera horretan, eta egun ederra pasa zutela. Almadiak ikusi eta eguerdi partean, Izabaraino joan ziren, bazkaltzera. Etxerako bidean, Leireko monasterioa bisitatu zuten.

PRESIDENTE BERRIA

Bestalde, Olazar erretiratuaren elkarteak zuzendaritza batzorde berria du. Aurrerantzean, Txomin Azpitartek Maximo Inurrategi ordezkatu du presidente lanetan. Gainerako karguak honela geratzen dira: Roberto Kortazarrek presidente orde moduan jardungo du; Emilita Gartzia idazkaria izango da; Jasone Orbegozo,



Maiatzaren 1ean erretiratuak egindako irteera.

OLAZAR ELKARTEA

diruzaina; eta Inazio Oion, Mari-sa Isasmendi, Maria Jesus Bitorria eta Eugenio Crespo, bokalak.

Horrekin batera, zuzendaritzatik azaldu dute elkartearen bulego ordutegia lehengo bera izan-

ten jarraitzen duela; hain justu, martitzenetan eta egunetan, 11:00etatik 12:30era. Informazioa telefono bidez jasotzea nahiago dutenek, 943 71 48 97 zenbakira dei dezakete esandako orduetan.

oharrak

UMEAK

> Marko tailerra gaur ludotekan

Gaur, egubakoitza, marko tailerra egingo dute Tortolis ludotekan.

JAIK

> San Isidoren harira, baserri-tarrendako meza eta bazkaria

Bihar, zapatua, San Isidro eguna ospatuko dute baserri-tarrek. Eguerdian, 12:00etan, meza izango dute Aingeru Guardan, eta jarraian, bazkaltzera joango dira denok batera.

GAZTEAK

> Eskulanak gaztelekuan

Bihar eta etzi fimo ikastaroa izango dute gertu herriko gazteek, 18:00etan, gaztelekuan.

KIROLAK

> Kirol hitzordu asko asteburuan

Kirol hitzorduz lepo dator aste bukaera. Bihar hiru partidu jokatu dira Intxaurtxuetan: 11:00etan, junior mailako

saskibaloia norgehiagoka egongo da, Eskoriatza eta Bera Bera Uliarte artean; 16:00etan, Ohorezko Ligako areto-futbola, etxekoen eta Aguraingo Oriamendi Lezaola taldekoen artean; eta 18:00etan, Euskal Ligako areto-futbola, Eskoriatza eta Azepeitia artean. Domekan, 11:00etan, gazte mailako areto-futboleko partiduak jokatu dute, etxekoek eta Eskolapioak Denak Txikiak taldekoek.

UMEAK

> Bertso jaialdia martitzenean

Almen eta Luis Ezeiza ikastetxeetako neska-mutikoek eskainita bertso jaialdia izango da martitzenean, 17:00etan, kiroldegian.

ERAKUSKETA

> Ingurumena aztergai museotan

Hilaren 20ra arte, *Formularik iraunkor eta solidarioena: +3Rs- CO2* izeneko erakusketatik ikus daiteke, Ibarraudin.

LENIZ
ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

JENDARTEA > OSPAKIZUNAK

Ganadu, artisau eta jaki postuak San Isidro eguna ospatzeko

09:00etatik 14:00etara ganadu azoka, artisauak eta salmenta postuak izango dira herriko plazan

Argazki lehiaketako eta kukumarro lehiaketako sariak 12:00etan banatuko dituzte Olanan etxean

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Ganadu, artisau eta salmenta postuek hartuko dute bihar Antzuolako plaza eta pilotaleku ingurua. Herrian hain ezaguna den San Isidro eguneko azoka ospatuko dute bihar, 09:00etatik 14:00etara.

11:00etan kukumarro erakusketak jarriko dute Iturri inguruan. Ordu berean, 11:00etan, meza izango da Antiguan eta ondoren, Trekutz elkartean salda eta txistulari eta trikitilarien kalejira. 12:30ean, kukumarro lehiaketako sariak.

ARGAZKI LEHIAKETA

Antzuola eta antzuolarrak argazki lehiaketako sariak bihar banatuko dituzte (12:00etan). Aurten bigarren urtez antolatu dute lehiaketa, eta saridunak dira: Iñigo Alonso eta Juanjo Etxezarreta 19 urtetik gorako mailan; Hira Mehmood eta Endika Mata 13-18 urte bitarteko artean; eta Mairi Olabarria eta Alaitz Mata 6-12 urte bitarteko artean.

Gainera, bihar, zapatua, eta etzi, domeka, argazki lehiaketako lanak ikusgai egongo dira Olanen, 19:00etatik 20:30era.



San Isidro eguneko salmenta postua.

ARTXIBOA

KIROLA

Estalan erabakiko da igoera postua

Etxeko taldeak mailari eustea lortu du; bihar amaituko da liga

A.E. > ANTZUOLA

Estalan erabakiko da erregional preferente mailako liderra nor izango den. Etxeko taldeak Anaitasuna izango du aurrean bihar, 18:30ean. Antzuolarrek dagoeneko egin dituzte etxeko lanak: mailari eustea lortu zuten joan den astean Eibartarrak taldeari 0-3 irabazita. Hortaz, ligako epaileak izango direla esan daiteke.

LIDERRA, BERDINDUTA

Anaitasuna sailkapeneko liderra da; baina 64 puntura berdinduta dago bigarren den Zumaiakorekin. Hortaz, azkoitiarrak euren esku dute lidergoa.

"Azkoititik zale asko etorriko direla esan digute. Horregatik, partidu polita izango da, liga amaitzeko tokatu ahal zitzaigun politena", dio Iban Unanue entrenatzaileak.

Sufritutakoaren ostean zaleekin ospatu gura dute Antzuolako futbolariak datorren urtean ere erregional preferentean izango direla.

KIROLA > PILOTA

Mendizabal: "Indartsu atera ziren kantxara errioxarrak"

A.E. > ANTZUOLA

Aitor Mendizabalek eta haren bikotekide Zubirik 22-13 galdu zuten GRAVN txapelketako finala. 22 urtez azpikoen mailan Errioxaren aurka lehiatu ziren gipuzkoarrak Ogeta pilotalekuan. "Indartsu atera ziren. Hasieratik

dena alde izan zuten eta guk ez genuen zorterik izan", dio Mendizabalek finalaren gainean.

ELGETAKO TXAPELKETA

Mendizabalek hilaren 21ean hasiko du Elgetako lau terdiko txapelketa 23 urtez azpikoetan.



Aitor Mendizabal Ogetan.

A.E.

> MUNDUMIRA

Aparkalekuak jarriko dituzte Bergaran eta Urretxun

Udalak dei egin du Mundumira jaialdira autoz ez etortzeko. Bergaran -Labegaraia- eta Urretxun -Mugitegi- aparkalekuak jarriko dituzte; eta, autobus publikoa egongo da bi herri horietatik Antzuolara.

> UDALA

Pobretutako herriei 5.352,65 euro bideratuko dizkiete

Pobretutako herrialdeei Udalak bere aurrekontuaren %0,7 bideratzeko konpromisoa hartu du. Kopuru hori izango da 5.352,65 euro eta Bideberri mankomunitatearen bitartez bideratu eta banatuko dute.

oharrak

IKASTAROA

> Memoria lantzeko ikastaroa egingo dute erretiratuen elkartean, Bizikasiren eskutik

Bizikasiren laguntzarekin antolatu dute ikastaroa. Maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean, 8an eta 15ean izango da ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara. Izena eman behar da maiatzaren 17an, 16:00etatik 18:00etara, erretiratuen elkartean bertan. 20 pertsonarendako lekua egongo da. Izena gehiagok emanez gero, zozketa egingo dute.

LIBURUTEGIA

> KZgunean begiralea egongo da maiatzeko martitzenetan

Maiatzari dagokionez, KZguneko zerbitzua begiralearen laguntzarekin martitzenetan izango da. Begiralea egongo da hilaren 18an eta 25ean, 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:

Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak



Udalbatzak oniritzia eman zien San Martin ikastetxean egin beharreko egokitzapen lanei.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA > SAN MARTIN

Egokitzapen lanak udan San Martin ikastetxean

Ikastetxeko estalkiari altuera handiagoa emango zaio, etorkizunean igogailua jarri ahal izateko

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

San Martin ikastetxean igogailua jarri ahal izateko egin beharreko egokitzapen lanak aztergai izan zituzten aurreko egueneko osoko bilkuran. Hain zuzen ere, ekainean egin nahi dituzte aipatutako lanak.

Nardeaga kaleko San Martin ikastetxeko eraikina 1971koa, da,

eta beheko solairuaz gain, beste bi solairu ditu. Estalkiari altuera handiagoa emango zaio, eta eskailera nagusiak bertaraino egingo dira, teilatupeko solairuraino, hain zuzen, etorkizunean igogailua jarri ahal izateko.

Lanak ekainean hasiko dira, ziurrenik, behin ikasturtea amaituta. Gaur egun 2-12 urte bitar-

teko 140 ikasle ditu San Martin ikastetxeak.

GAZTETXOENDAKO TAILERRAK

Udalak 12 urtetik gorako gaztetxoendako bi tailer iragarri ditu. Hurrengo zapatuan, hilaren 22an, Plantilla tailerra izango da gazte lokalean, 16:30ean. Gaztetxoek kamiseta, patineteta edo bestelako objekturen bat eraman dezakete, haren gainean marrazkia egin ahal izateko. Ekainaren 19an kandelagintza jorratuko dute.

Manex Agirre > Bertsolaria

"Giro berezia izan zen goizetik eta asko gozatu genuen denok zapatuko finalean"

E. M. > ARAMAIO

Arabako koadrila arteko txapelketa irabazi zuen Aramaiok zapatuan, Gasteizen. Andere Arriolabengoa, Iker Agirre, Xabi Igoa eta Manex Agirre izan ziren Aramaioko ordezkariak. Manexekin izan gara.

Gasteizko Landatxo pilotalekuak Bilboko BEC ematen zuela irakurri dugu...

Modu figuratiboan, bai. Kalejira, herri bazkaria eta dantzariak izan ziren finalaren aurretik eta oso giro berezia izan zen. Aramaiotik jende mordoa joan zen eta asko gozatu genuen zapatuan. Betiko eredutik irten eta txapelketa ezberdin bat egiteko saiakera egin da, eta ondo aterada.

Zein izan zen txapelketa irabazteko gakoa?



Manex Agirre.

Zaila da horri erantzutea. Hasieran, beharbada, ez ginen horren ondo ibili, baina finalak aurrera egin ahala erosoago eta konfiantza handiagoarekin aritu ginen. Bukaera hasiera baino

hobea izan zen eta nik uste dut horrek eman zigula txapela.

Zein sari jaso duzue?

Txapelaz gain, Ollerietako Blanca Gomez de Segurak egingo du zeramikazko plaka bat. Eta asteburuko egonaldia landetxe baten; hamar lagun izan gara taldean, eta Urnietara joango gara denok, udazkenean ziurrenik.

Bertso dramatikoak botatzea tokatu zitzaizun finalean...

Bakarkako saioan, zera tokatu zitzaidan: "Gaurko egunean urtero bezala loreak eraman dizkiozu". Motibo ona topatu behar nuen bi bertso botatzeko eta betetzeko eta minbiziz hildako neskalagunari egitea bururatu zitzaidan. Neskalagunak zer esan didan? Hark ondo daki bertsolaritza fikzioa dela.

KOMUNIKAZIOA > GOITB

GOITB Lurreko Telebista Digitalean ikusgai dago

USOA AGIRRE > ARAMAIO

Iritsi da Aramaiora ere Goiena Telebistaren seinale digitala. Azken egunotan jardun dute teknikariek horretarako beharrezkoak diren moldaketak egin. Lurreko Telebista Digitala ikusteko 52. kanalean aurkituko dute ikusleek Goiena Telebista. Sintonizazio probak egin eta aurkitzeko zailtasunak izanez gero, teknikari batekin jarri behar da harremanetan, antenen beharrezko egokitzapenak egin eta arazoa konpontzeko. Edozein zalantza

argitzeko atal bat dago *Goiena.net* atarian: <http://goiena.net/gaiak/ez-duzu-ikussten-goitb>.

AUKERA HANDIAGOAK

Goiena Telebistak digitalera salto egiten duen Debagoieneko azken herria da Aramaio. Teknologia digitala aplikatuz posibilitate handiagoak lortzen dira, hala nola kanal kopuru handiagoa, irudi kalitate hobea eta bereizmen handiko irudiak, eta, aldi berean, soinu kalitate hobea.

> IRTEERA

Ekainean Kortezubiko Basondo aterpetxera joateko izenematea eguaztenera arte dago zabalik

Zuiko Koadrilak antolatuta, bertako faunaren Basondoko aterpetxea, Kortezubin, ikustera joateko irteera izango da ekainaren 6an. Aramaiotik irteera 09:30ean izango da eta itzulera, berriz, 14:30 aldera. Plaza mugatuak dira eta izenematea eguaztenera arte, maiatzaren 19ra arte, dago zabalik.

Irteeraren prezioa 7 edo 9 eurokoa da. Interesatuak udaletxera jo dezakete. Argibide gehiago 945 44 50 16 telefonoan.

> JAIK

San Martin jaietako kartel lehiaketarako lanak maiatzaren 31ra arte jasoko dituzte

Uztailaren 2tik 11ra bitartean ospatuko diren San Martin jaietako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Adinaren arabera bi maila bereiziko dituzte: 16 urtetik behekoendako eta nagusiendako. Gaztetxoaren arteko irabazleak 60 euroko bonua jasoko du Elkar denetan erabili ahal izateko. Nagusien sari nagusia 150 euro da. Lanak maiatzaren 31ra arte jasoko dituzte udaletxean.

> ONGIZATEA

Turismo eta termalismo programa deitu dute ezinduendako ekainetik abendura bitartean

Ezintasuna duten pertsonendako turismo eta termalismo programa deitu dute eta interesatuak udaletxeko gizarte zerbitzuko bulegora jo dezakete argibide eske. Irteera data baino bi hilabete lehenago egin behar da eskaera. Bidaiek ekainetik abendura arte eskaintzen dira, hilabetero. Laguntzaile batekin joateko aukera ere badago.

> DIPUTAZIOA

Ezinduei zuzendutako dirulaguntzen eskaerak uztailaren 29ra bitartean jasoko dituzte

Pertsona ezinduei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du Diputazioak. Besteak beste, etxean irisgarritasuna lortzeko laguntzak, etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak eta zaintza pertsonalekoak jasotzen dira. Eskaerak uztailaren 29ra arte jasoko dituzte. Argibideak, udaletxeko gizarte laguntzailearen bulegoan.

> INFORMATIKA

KZguneko monitorea astelehen arratsaldean izango da; hainbat ikastaro eskaintzen dituzte

Astelehenean, maiatzaren 17an, Aitor Madrid KZguneko monitorea 16:00etatik 20:00etara izango da. Ona txartela eskuratzeko aukera dago; beharrezkoa da nortasun agiria eta osasun txartela eguneratuta eramatea. Era berean, hainbat ikastaro eskaintzen ditu Aramaioko KZgunek. Argibideak, 945 44 54 36 zenbakian.



Bixente Askasibar, Kaprikornio tropikoan.

BIXENTE ASKASIBAR

Bixente Askasibar > Abenturazalea

"Orain, Hegoafrika ezagutu gura dut"

GOIATZ ARANA / L.Z. > ELGETA

Badira aste batzuk etxean dela. "Lasai eta ondo jaten", haren esanetan. 3.000 argazki inguru ekarri ditu azken bidaiatik. Motorra Hegoafrikan utzi du; zain omen dauka hurrengorako.

Abentura hau bukatu orduko sortu zaizu hurrengorako grina.

Bai. Nire hasierako asmoa zen Hegoafrikako lurmuturrera iritsitakoan motorra saltzea, baina garaje baten utzi dut, azkenean. Hegoafrika ezagutzeko grina piztu zait, eta, gauzak ondo bidean, datorren urtean joateko asmoa dut. Motorra zain daukat!

Zer iruditu zaizu Afrika, iparraldetik hegoaldera zeharkatu duzun honetan?

Afrikako 17 herrialde zeharkatu ditut motorrean. Lurralde oso zaila da, kontraste handiak ikusi ditut. Naturaren indarrarekin zur eta lur gelditu naiz. Edozer landatu eta hazi egiten da. Gero, txanponaren beste aldean, burokrazia, polizia, bisatuak lortzeko zailtasunak daude. Afrikarrendako zuriak dirua dauka, eta horixe zen gure eguneroko borroka; prezioen borroka, hain zuzen.

Lortu duzu zure helburua. Iritsi zara Hegoafrikako lurmuturrera!

Bai; azkenean, bakarrik heldu naiz eta hasieran aurreikusitakoa baino denbora luzeagoa behar izan dut. Baina pozik nago. Hasierako arazo mekaniakoak konpondu egin nituen eta motorra ere oso ondo ibili da. Ez dut kezarik!

Trantze gogorrek ere bizi izan dituzu, baina.

Bai; lapurreta izan genuen Kongoko mugan. Pistola atera eta auto baten sartu gintuzten. Poliziak ziren eta dirua nahi zuten. Beldurtu egin ginen. Bizia galtzeko arriskurik ez genuen ikusi, baina trantze gogorra izan zen hura!

"Afrikako 17 herrialde zeharkatu ditut motorrean; lurralde oso zaila da"

"Naturarekin txundituta gelditu naiz; edozer landatu eta hazi egiten da Afrikan"

OSPAKIZUNAK > ASENTZIO EGUNA

Etzi, domeka, haur jolasak, meza eta bazkaria Asentzión

Guraso elkarteak eta gaztetxeak batera antolatu dituzte ekintza nagusiak

L.Z. > ELGETA

Maala guraso elkarteak eta gaztetxeak egitarau polita presatu dute Asentzio egunerako. Hala, eguerdi partean, eta eguraldia lagun bada, txosna zabalduko dute Asentzión bertan. Pintxoak eta tragoak hartzeko

aukera egongo da bertan. 12:00etan haur jolasak egingo dituzte eta 14:00etan herri bazkaria izango da. Eguraldi txarrarekin, ekintza horiek guztiak kiroldegiko gimnasiaora eramango dituzte.

Urteroko meza ere esango dut. 12:30ean esango du Leonardo Esnaolak.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaur, berriz, gaztetxean, kontzertu egingo dute Clavo Ardiendo eta Aldexok taldeek 23:00etan hasita.

AISIA > ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA

Elgetak lan txukuna egin du eskola arteko txapelketan

Gipuzkoako herri kirolen txapelketako finalean izan dira Elgetako zazpi gazte

MAKINA LAN EGIN ZUTEN

Zaku eramatea, jende proba, lokatzak, txingak eta sokatira izan ziren egin beharreko probak. Elgetako taldea izan zen ordezkari gutxien zituen taldea, eta, hortaz, makina lan egitea egokitu zitzaizkien taldeko zazpi kideei. Zalantza barik, abantaila handia izan zen hori lehiako gainerako taldeendako. Lazkaoko ikastetxea nagusitu da aurten txapelketan, baina elgetarrak pozik egoteko moduan daude. Herriak eta ikastetxeak bere presentzia izan du lehiaketan. Zorionak!

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Zazpi ikastetxek jokatu zuten zapatuan eskola arteko Gipuzkoako herri kirolen txapelketa; tartean, Elgetako ordezkariak. Harro egoteko moduan dauden alebin mailako zazpi neska-mutikoak. Lan oso txukuna egin zuten txapelketan.



Eskola arteko txapelketan izan den neska-mutiko taldea.

GURUTZE TELLERIA

bere ustez



Geaxi Ezpeleta

Jira eta bira, zorabiatu naiz!

Jira eta bira, guztiz zorabiatu naiz dagoeneko! Guztiak korrika alde batetik bestera, presaka, garaiz iritsi ezinean. Hara joan, hona etorri, hau eraman, hura mugitu. Beti zerbait esku artean. Lana, ikasketak, mugikorra, ordenagailua. Gauza guztietara iritsi nahi eta ezinean.

Okupatutako gizarte batean bizi gara, duda izpirik gabe. Presaka alde batetik bestera, mugikorra belarrira itsatsita eta kirioak beti airean. Bizitzako abenturan aurrera eginez ia konturatu

"Zenbat une gozatu gabe presaren, nekearen eta urduritasunaren mendean!"

gabe, ziztu bizian; azkarregi, agian.

Zenbat une gozatu gabe presaren, nekearen eta urduritasunaren mendean. Zenbat momentu atsegin galduak honen guztiaren ondorioak pairatzen. Garrasi eta kekak banatuz, irri eta laztanen orde, gehien maite ditugunen artean.

Norbanakook sortzen ei dugu gizartea, baina gizarteak baldintzatzen du norbanakoon izatea. Individualismoa nagusi den munduan, baloreak ahaztuak geratu dira leku ezkuturen batean; aberastasuna, boterea, gorenera iristea, garaipena lortzea, garrantzitsuena bihurtuz doan hein berean.

LEINTZ GATZAGA > AISIALDIA

Gogotsu dabil lanean Gurel

Atxorrotzeko eguna ume eta gurasoak izan ziren

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak gogotsu ekin zion ikasturteari irail inguruan eta ordutik hona geratu barik dabil lanean. Martxoan herriko lorategiak txukundu zituzten eta maiatzaren lehenengoan aste bukaera pasa egin gura zuten; eguraldiak, baina, ez zien

lagundu eta egun pasa egin zuten zapatuan. 50 bat lagun batu ziren eta elkarrekin bazkaldu ostein pilotaleku alboko horma margotu zuten. Domekan, osteran, Atxorrotz eguna zela-eta hara joan zen 30 bat laguneko koadrila. Goiz pasa egin, eta bueltan, elkartean bazkaldu zuten haiek.

EKAINEAN IRTEERA

Laster uztaileko udalekuak antolatzen hasiko da Gurel. Baina hori baino lehen, ekainean, irteratxo bat egin gura du, Nafarroako Arguedas herri inguruan dagoen Senda Viva parkera, hain zuzen. Gainera, ludotekari agur esango diote ekainean eta San Juan bezpera ospatzeko ekitaldiak ere antolatuko dituzte.



Gatzagako koadrila Atxorrotz inguruan, maiatzaren 2an.

GUREL

AUTO LASTERKETA > GORLAKO IGOERA

Eguraldia epaile izan daiteke berriro Gorlako auto igoeran

Aitor Zabaleta ez da barketarekin lehiatzen bakarria izango, Aitor Errok Osella Pa20 autoa ekarriko du-eta; ibarreko hamar pilotu izango dira irteeran

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den asteko Udanako igoerari Gorlakoak hartuko dio erreleboa oraingo zapatuan (15:00). Oñatin Zabaletari nahi baino gehiago kosta zitzaion irabaztea, errepidea bustita eta olio zikin-duta zegoen-eta, eta bihar beste zailtasun batzuk izango ditu gainditzeko, Aitor Errok ere barketa batekin korrituko du-eta (Osella P20). Ez dira barketa bakarrak izango: indar txikiagoa badu ere, Angela Vilariñoren Norma 20 autoa ere lehiakorria izango da.

Pilotu horiekin batera lehiatuko dira beste 48 lagun, eta tartean egongo dira ibarreko hamar ordezkari. Bergararik izango dira



Iazko Gorlako igoeran tarteka euria egin zuen, eta pilotuek zailtasunak izan zituzten ze gurpil jarri erabakitzerakoan. GOIENKARIA

Markel Agirre (Saxo VTS), Roberto Gomez (BMW 325), Igor Calleja (BMW 325) eta zapatuan lasterketan debuta egingo duen Iñigo Lizarralde (Citroen ZX 16v). Oñatik pilotuen artean izango

dira Ruben Nogueiras (Silver car), David Ardions (Clio sport), Asier Mugartza (Clio sport), Enrique Gomez (Clio Sport), Aitor Ramirez (), Aitor Arnaiz (), eta Sergio Porcel (Xsara VTS). Eta,

Arrasateko ordezkaria izango da Igor Orobengoa (Ibiza GT TDI).

Iazko Gorlako igoeran tarteka egin zuen euria, eta badirudi bihar ere eguraldiak epaile lana egin dezakeela.

BOULDER

Boulder txapelketa Mundumira jaialdian

Euskal Herriko eskaltzaile onenak bilduko dira hilaren 29an Antzuolan

MIREIA BIKUÑA > ANTZUOLA

Mundumira jaiaren barruan jokatuko dute Euskal Herriko boulder txapelketa. Hain zuzen ere, hilaren 29an egingo dute Antzuolako pilotalekuan. Atzo aurkeztu zuten boulder txapelketa Arrasateko Import enpresan.

IZENEMATEA, ZABALIK

Antolatzaileek esan zuten aurkezpenean maila handiko eskaltzaileek parte hartuko dutela gazte eta senior mailatan. Guztira, 50-60 bat espero dituzte.

Txapelketan parte hartu nahi duenak federatuta egon beharko du, eta 12 euro ordaindu beharko ditu. Izenematea Euskal Herriko Mendi Federazioaren webgunean egin daiteke hilaren 26a baino lehen.



Iazko derbian bi taldeetako jokalariek zelai erdian lehiatzen. GOIENKARIA

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak eta Mondrak derbia jokatuko dute domekan

Ibarreko ordezkariak seigarren postuan nahi dute amaitu aurtengo denboraldia

X.U. > ESKORIATZA

Mailari eusteko etxeko lanak egin da, Bergarak, Mondrak eta Aloñak ahalik eta ondoen amaitu nahi dute liga. Eta, ahalik eta ondoren diogunean, seigarren postuan sailkatzeaz ari gara, hortik aurrerakoak urrun daude-eta.

Orain, Idiazabal (44) dago postu horretan eta atzetik datoz Bergara (42), Mondra (42) eta Aloña (41).

Hala, ibarreko talde onena izateko lehiatzen datozen bi asteotan partidu erabakigarriak jokatuko dituzte hiru taldeek, Mondrak Aloñarekin eta Bergararekin derbiak izango ditu-eta.

Lehenengo aurrez aurrekoa oraingo domekan jokatuko dute, Azkoagainen (16:30), eta gorritxo-en eta zuri-moreen artean puntu bateko aldea baino ez dago. Joaneokan, Mojategin, Mondrak irabazi zuen (2-0).

ZEGAMA-AIZKORRI

Mendiko maratoni ezagunena domekan

Aurtengo proba ere Skyrunner munduko koparako baliagarria izango da

X.U. > BERGARA

Domekan egingo dute, 09:00etan hasita, Zegama-Aizkorri mendi maratonia, 2004a ezker munduko koparako baliagarria dena. Lasterketan 450 lagunek hartuko dute esku-antolatzaileek gonbidatutakoak gutxi batzuk eta zozketa bidez aukeratutakoak gainontzekoak- eta tartean izango dira, urtero moduan, debagoiendar asko.

ERREKORREN BILA

Aurreko edizioetan ezarritako errekorrak ia-ia gaindiezina dira (Kilian Jornet 3.59.33 eta Emanuela Brizio 4.38.19), baina horiek hobetzen saiatuko dira domekan. Astelehenean, GOITBko Harmailatik saioak tarte berezia eskainiko dio lasterketa horri.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Castellon
Gaur. 21:00. Anoeta.

Ohorezko erregionala
Bergara-Real Union
Zapatua. 17:30. Agorrosin.
Aloña-Mondra
Domeka. 16:30. Azkoagainen.

Erregional preferentea
Getariako-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Mendibelz.
Antzuola-Anaitasuna
Zapatua. 18:30. Estala.

Lehen erregional maila
Gazteak-Bergara B
Zapatua. 16:30. Unbe.

Lehen erregionala, igoera
Sto. Tomas Lizeoa-Mondra
Domeka. 17:15. Berio.

Lehen erregionala, kopa
Segura-UDA Arizmendi
Domeka. 18:30. Segura.

Ohorezko gazteak, kopa
Mondra-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Aloña Mendi-Burumendi
Zapatua. 16:30. Azkoagainen.

Gazteak, igoera fasea
Amaikak Bat-Aretx. Ariz B
Zapatua. 12:00. Deba.

Gazteak, kopa
Urki-Bergara B
Zapatua. 18:30. Unbe.

Emakumezkoen igoera
Arizmendi-Amara Berri
Domeka. 17:30. Almen.
Añorga-Mondra
Zapatua. 17:30. Rezola.

SASKIBALOA

Lehen nazionala, jaitsiera
San Inazio-MU
Zapatua. 18:00. Bilbo.

Maila autonomikoa, igoera
Aloña Mendi-Suelbat
Domeka. 18:00. Iturripe..

Gazte gizona. Partaidetza
MU B-Zast Zarautz
Domeka. 11:45. Musakola.
Aloña Mendi-Take Tolosa
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Gazte emaku. Partaidetza
Eskoriatza-Bera Bera
Zapatua. 11:00. Eskoriatza.

ESKUBALOA

Euskadiko txap. Igoera
Trapagaran-Soraluce BKE
Zapatua. 16:30. Trapaga.

Kopa senior gizonetakoak
Arrate (Naz.)-Ford Mugarrri
Zapatua. 18:00. Ipurua.
Izarraitz Aloña-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Kopa senior emakumezkoak
Verkol Aloña-Leizaran
Gaur. 20:00. Zubikoa.

Kopa gazteak, gizonetakoak
Bergara Soraluce-Egia
Zapatua. 12:45. Labegarriet.
Leizaran-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Andoain.

Kopa gazteak, emakumezkoak
Bera Bera-Bergara Soralu.
Zapatua. 16:30. Donostia.
Winbel Eharia.-Citroen Chap.
Domeka. 12:00. Gasteiz.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Azpeitiko
Zapatua. 18:00. Intxaurtx.

Bigarren maila
Urritzta Jat.-UDA Orly
Zapatua. 16:15. Billabona.

Gazteak
Eskoriatza-Eskolapioak
Domeka. 11:00. Intxaurtxu.

PILOTA

Herri Arteko txapelketa
Egubakoitza. 22:00. Azpeitia.
Bergara-Azpeitia.

Udaberri txapelketa
Egubak. 20:00. Bergaran.
Bergara (Perez)-Eibar.

Errendimen. Udaberri
Zapatua. 16:00. Bergaran.
Intxurre-Bergara
Eskoriatza-Euskal Jolas
Olalde Bergara 3

ERRUGBIA

Errugbi TAG
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Errugbian jokatu nahi duten
guztiendako. Izenematea
bertan.

Kadeteak
Durango/ART-Bilboko univ.
Zehaztu gabe.

MENDI LASTERKETA

Zegama-Aizkorri proba
Domeka. 09:00. Zegam.

AUTO LASTERKETAK

Gorlako igoera
Zapatua. 15:00. Bergaran.

ATLETISMOA

Otala Zelai krosa
Domeka. 10:00etan hasita
gaztetxoan lasterketak.
Nagusiak 11:00etan.



> **MINTZA EGUNA**
Euskal Herriko mintzalagunen jaia Arrasaten izango da > 30



> **GOIO ARRIETA**
Eskoriatzarra pozik dago bere antzezlanak izandako arrakastarekin > 30



> **DISKOA**
Bergarako Emon taldeak gertu dauka diskoa: 'Piztu herria' > 31

Erakusketa ehun-hondakinen berrerabilpenaren gainean

MARKA

Erakusketa Sin Desperdicio markako produktuak daude

IBARRAUNDIN

Eskoriatzan ikus daiteke hilaren 20ra arte, goiz eta arratsalde

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Emaus fundazioak erakusketa zabaldu du Eskoriatzako Ibarraundi museoan: *Ezagutu formularik iraunkor eta solidarioena, +3R's = -CO2*. Hain zuzen ere, hilaren 20ra arte ikus daiteke, 09:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketarekin bete gura duten helburu nagusia da ehun-hondakinen kudeaketari, berrerabilpenari eta birziklapenari buruzko informazioa ematea. "Herri guztietan daude etxeko hondakinak birziklatzeko edukiontzia, koloreen arabera oso erraz bereizten direnak. Baina ehun-hondakinen gainean oso gutxi dakite herritarrek. Hori horrela, informazioa zabaldu gura dugu", esan digu Emauseko ingurumen teknikari Manu Mendezek.

Erakusketa, ehun-hondakinen birziklapen zikloari buruzko informazioa jasotzen duten panelak jarri dituzte. Horietan hainbat datu ematen dituzte; besteak beste, 100 tona hiri-hondakin birziklatuz gero, atmosfera-igorritako 50 tona CO2 ezabatuko genukeela; eta Europako Batasunean sortutako zaborren %37 birziklatuz, airera 158 milioi CO2 igortzea ekidingo genukeela.

BIZI-ZIKLOA LUZEAGOA

Ehun-hondakinak hiri-hondakinen zati bat dira. Hain zuzen ere, etxeetan, dendetan eta ostalaritzan sortzen diren hondakinak; besteak beste, jantziak, etxeko arropak (mantak, izarak, gortinak...), oinetakoak eta osagaiak dira ehun-hondakinak.



Ibarraundiko erakusketa Sin Desperdicio markako produktuak eta berrerabilitako arropak ikus daitezke.

MIREIA BIKUÑA

Arropen bizi-zikloa luzeagoa izan dadin jarraitu beharreko aholkuak ematen dituzte erakusketa: arduraz kontsumitu, berrerabili eta birziklatu. "Pol-

tsetan Emausera ekartzen duten arropa gehiena egoera onean ekartzen dute. Dena den, herritarrek jakin behar dute arropa hori gero beste batzuek erabili-

ko dutela. Hortaz, kontu handiz ibil daitezela. Norberak ipintzeko moduan ez dauden arropak, apurtuta daudelako edo oso zaharrak direlako, kalean dauden edukiontzietara bota ditzakete", esan digu Manu Mendezek.

saltzen dituzte modeloaren arabera; eta giltza-zorroak 3 edo 5 eurotan. Gainera, maletak saltzen dituzte 50 eta 65 euro artean, tamainaren arabera.

Emausen Debagoieneko denda Arrasaten dago, urriaren 31z gerostik zabalik

Emaus fundazioak urriaren 31n zabaldu zuen bigarren eskuko arropa saltzen duen lehen denda Debagoienean. Hain zuzen ere, Arrasateko Nafarroa etorbideko 23. zenbakian zabaldu zuten. Arrasateko Udalaren Enplegu eta Garapen Ekonomia Sailaren eta Emaus fundazioaren arteko lankidetzak akordioaren ondorioz sortutako dendaren helburu nagusiak bi dira: alde batetik, ingurumenarekiko errespetua bultzatzea eta indartzea; eta beste alde batetik, baztertze arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzea. Dendan bigarren eskuko arropak eta Sin Desperdicio markako produktuak saltzen dituzte.

Emaus fundazioak bost saltoki ditu Gipuzkoan: Donostiako Ekocenter zentroa eta Amarako Topagunea; Irungo bi Topaguneak; Tolosako Topagunea; eta Arrasateko denda. Guztietan saltzen dituzte birziklatutako eta berrerabilitako produktuak. Gainera, etxeko bilketa egiten dute, 902 45 58 55 telefonora deituta.

SIN DESPERDICIO MARKA

Ibarraundiko erakusketa bisitatu dutenek Sin Desperdicio markako arropak ikus ahalko dituzte: poltsak, amantalak, adur-zapiak... Horiek guztiak, hauteskundeetako, herriko jaietako eta jaialdietako publizitate-banderekin egindakoak dira. Emausek banderok batzen ditu -Euskal Herrikan kanpokoak ere bai- eta garbitu; kasu batzuetan, plantatu, eta gertu uzten dituzte langileek Sin Desperdicio markako produktuak egin ditzaten. Ondoren, prezio merkean saltzen dituzte Emausek Arrasaten duen dendan. Adibidez, poltsak 20 eurotan

"Norberak ipintzeko moduan ez dauden arropak kaleko edukiontzietara bota daitezke"

"Ehun-hondakinen birziklapenari buruzko informazioa zabaldu gura diegu herritarrei"

Manu Mendez > Emauseko ingurumen teknikaria



2008an Getxon ospatutako Mintza Eguna; bazkalondoren, parte-hartzaileak dantzan.

GOIENKARIA

EUSKARA > OSPAKIZUNAK

Ekainaren 6an Mintza Eguna ospatuko dute Arrasaten

Bazkaria izango da eguneko hitzordu garrantzitsua, eta 500 txartel atera dituzte Herriko Plazan izango den bazkarirako

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Euskal Herri osotik etorritako mintzalagunen topalekua izango da ekainaren 6an Arrasate. Izan ere, V. Mintza Eguna ospatuko dute. Euskara Elkartearen Federazioak antolatu du, AEDren, AEKren, Udal Euskaltegiaren eta Udalaren laguntzarekin.

Helburua da euskara elkarteek kudeatzen dituzten mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten berbalagun edo mintzalagunek elkar ezagutzera.

BAZKARIRAKO TXARTELAK
Mintza Eguneko hitzordu garrantzitsua bazkaria izango da. 500 txartel atera dituzte ekainaren 6an egingo den bazkarirako. "Kanpotik 400 lagun inguru etorriko direla espero dugu", azaldu du Maitena Aranak, Zahar Berriko arduradunak. Txartelak eros daitezke AEDn edo euskal-

tegian maiatzaren 25a baino lehen, 20 euroren truke. Bazkaria Herriko Plazan izango da.

"Arrasaten egitea erabaki da, azkenaldian nahiko geldituta zegoelako proiektua. Guretzako ohorea da hemen izatea jai, eta herritarrek inplikatu gura ditugu", adierazi du Aranak. Gaineratu du jaialdi honekin Arrasateko Mintza taldeak indartuta aterako direla.

Bazkalondoren sariak banatuko dituzte: "Espe Sainz irakasleari eta Ana Isabel mintzalagunari emango dizkiegu oroigarriak, egin duten lana eskertzeko", azaldu du Aranak.

DEBAGOIENEN TALDEAK
Debagoienean hiru herritan daude mintzapraktika programak: Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan. Urtean zehar hainbat aktibitate egiten dituzte hiru taldeetako lagunek elkarrekin.

"Mintza taldeak sortzen ditugu adinaren eta zaletasunaren arabera, besteak beste", dio Aranak.

IAZKO BEHAKETA
Arrasateko Mintza Eguna bosgarrena izango da. Orain arte Iruñean, Donostian, Getxon eta Gasteizen ospatu izan dituzte.

2009an Gasteizko Mintza Egunean Aztikerrek egindako behaketa lanaren arabera, urte hartan Mintza Egunean bildutako-

en artean ia %100ek euskaraz berba egin zuten: euskararen erabilera hamaiketakoan eta kalejiran %92 izan zen; eta bazkalondorenean %100 ingurukoa.

MUGIMENDUAREN HISTORIA

Ia hamar urte dira Mintzalaguna egitasmoa sortu zela. 1993an Bagera euskara elkarteak Donostian sortu zuen lehendabiziko Mintzalaguna. Ondorengo urteetan egitasmoa Euskal Herrian zabaltzen hasi zen. 1998an antolatu zituzten lehenengo topaketak, eta Mintzapraktika batzordea martxan jarri zuten.

2005ean, Topaguneak proiektua martxan jartzeko metodologia jasotzen duen eskuliburua argitaratu zuen; eta hurrengo urtean Mintzapraktika programen inguruko jardunaldiak antolatu zituzten Durangon.

2006an lehendabiziko Mintza Eguna antolatu zen Iruñerrian eta 2007an www.mintzapraktika.org ataria sortu zuten.

Egitaraua, ordua

11:00etan Ongietorria eta hamaiketako Biteri plazan. Iraitz Agirrek aurkezpena egingo du.

12:00etan Ibilaldi gidatua Ana Isabel Ugalderekin eskutik.

13:30ean Kalejira.

14:30ean Bazkaria Herriko Plazan.

20:00etan Sari banaketa.

20:00etan Erromeria Kataide taldearekin.

Goio Arrieta > Musikazalea eta antzezlea

"Gustuko ditudan musikarien lanak erabili ditut antzezpenean"

A.E. > ARETXABALETA

Goio Arrieta eskoriatzarrak musikan oinarritutako antzezpenean egin ditu azkeneko bi egubakoi-tzetan Aretxabaletako Arkupen. Umorea ardatz hartutako antzezpenean izan dira, baina baita hungarriak ere. Ideia nondik nora hartu duen azaldu digu Arrieta.

Musikarekin lotutako bakarrizketak egin dituzu.

Musikan oinarritutako lana izan da. Abesti batzuk abestu ditut, bideo klipak jarri ditugu... lau pertsonaia antzeztu ditut, eta, batetik bestera aldatzeko orduan, bideo klipak jarri zuten genituen.

Oso musikazalea zara. Batez ere, azkeneko lau hamarkadetak musika erabili duzu.

Nire bizitzan erreferente izan direnak edo gustuko izan ditudan musikarien lanak erabili ditut. Askok izan dira, adibidez: Benito Lertxundi, Bruce Springsteen, Ramones, The Police, The Clash... Lan hauek erabili ditut, batez ere, Andres Calamaro, Fito & Fitipaldis, Manu Chao, Skalarriak eta Gatiburen musika erabili dit.

Nola sortu zaizu antzezpene hauek egiteko modua?

Betidanik izan dut horrelako zerbait egiteko gogo. Inauterietan beti egiten dut zerbait, baina momentu puntualak izaten dira. Orain arte ez dut egin, denbora faltagatik. Orain, denbora tarte bat hartu dut eta honetan hastea erabaki dut. Eskerrak eman behar dizkiet



ARKUPE

alde teknikoarekin lagundu didaten Iker Altuna eta Ander Hernandezi.

Zuk idatzitako lanak dira. Zeri buruz idazten duzu?

Antzerki asko ikusten ditut, eta baita bakarrizketak ere. Bi hilabetez ibili naiz bakarrizketak ikusten: gustuko nituenak hartu eta kopiatu edo egin ditudala esan daiteke.

Umorezko bakarrizketak izan dira, baina baita oso hungarriak ere.

Ez dakit ikusleei nola eragin dien, baina nik, behintzat, nire bihotz guztia jarri dut. Barruan dudak guztia bota dut.

Ikusleen erantzun ona ikusita, beste zerbait egiteko gogorik baduzu?

Oraingoan, gustura nago egindakoarekin. Eskatu didate Eskoriatzan egitea, baina aretoa ez da guk beharko guztuen modukoa. Ez dakit... izan ere, ni eskoriatzarra izanda...

ULMA C y E, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2010eko maiatzaren 21a.
Ordua: 9:00etan lehen deialdia eta 9:30ean bigarrena.
Tokia: Zubikoa Polikiroldegiko Kantxa - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2009ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2010eko gestio plana eta 2009-2012ko Plan Estrategikoa berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2009ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Emaizta aplikatzea.
6. 2009ko interesak kapitalizatzea.
7. Auditorea izendatzea.
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera.
9. Egituraz gairako erakundeekin zerikusia duten gaiak.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
13. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
14. Galderak eta eskaerak.

Oñati, 2010eko maiatza
KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusia bitartean aztertu ahal izateko.

DATUA

400

LAGUN

Euskal Herri osotik etorritako 400 lagun espero dituzte ekainaren 6an Arrasaten. Iparraldean ez dago Mintzalagun talderik; bai, ostera, Nafarroan, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan.

MUSIKA > ARGITALPENA

'Piztu herria': jendea aktibatzeke, Emon taldearen disko berria dagoeneko kalean

Diskoan hamar istorio kontatuko dizkigute, gertuko kontuetatik hasi eta Guantanamoko kartzelaraino; Bergarako jaietan aurkeztuko dute euren lehenengo lana



Emon talde bergararraren zortzi kideak.

EMON

NEREA MENOR > BERGARA

Bergarako talde heterogeneotarikoa dugu Emon. Zortzi kideetako bakoitzak ukitu berezi eta besteengandik ezberdina dena ematen dio taldeari. Emaizta? *Piztu herria* diskoa. Hamar abesbatiotan salaketa eta ikuspegi positiboa uztartzen ditu taldeak: "Dena hain iluna den garaiotan bizitzaren gauza positiboak kontuan hartu behar ditugulako".

ESTILO ASKOTARIKO TALDEA

Ska eta reggae doinuek nagusitasuna izan arren, funk eta Mexikoko musikaren estiloko abestiak ditu *Piztu herriak*. "Zortzi pertso-

na gara, begira zenbat influentzia! Hortik irteten da gure musika". Horretarako, bateria, gitarra, baxu, tronpeta, tronboi, saxofoi, trikiti eta ahotsaz baliatu dira bergararrak.

MEDEKOSTEETAN KONTZERTUA

Joan den astean Tolosan eskaini zuen taldeak diskoaren aurkezpen kontzertua. Hala ere, herrian hilaren 21ean aurkeztuko du, txosnetan. *Piztu herria* dagoene-

ko salgai dago disko-dendetan eta hainbat tabernatan. Hala ere, nahi duenak entzungai ditu abestiak taldearen webguneetan: www.myspace.com/emontaldea eta www.emon.tk.

> IKUSKIZUNA

Fagor etxetresnak, 'La Fura del Baus' lanaren babesle

Fagorreko De Dietrich goi gamako etxetresnen laguntza jaso du *La Fura del Baus* antzerki eta *permormance* taldeak.

Taldea *Degustación de Titus Andronicus* ikuskizuna eskaintzen dabil Donostiako Tabakalera aretoan. Arteari, teknologiari eta gastronomiari eginiko omenaldia da haien lana. Proposamen gastronomikoak zuzenean ikusteko aukera egongo da De Dietrichen eskutik.

> IKUSKIZUNA

Mireia Gabilondoren 'Ttakun ttan ttakun' lana Gasteizen

Juan Mari Beltran, Jon Maia eta Mireia Gabilondoren eskutik *Ttakun ttan ttakun* obra eskainiko da Gasteizko Principal antzokian.

Beltran eta Gabilondo bergararra Ttantaka teatroko kideak dira eta Jon Maia Kukai Dantza Taldean dabil aspalditik. Guztiek txalapartaren gaineko obra hau aurkeztuko dute bihar, 20:30ean. Sarrerak erosteko: www.generaltickets.com.

Zorionak eta ondo pasau Pentekoste jaixak!



Energia fotovoltaikoa
Energia termikoa
Geotermikoa
Zoru erradiatzailea
Biomasa

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK



Amillaga 10 BERGARA 20570 (Gipuzkoa)
620 56 13 16 / 669 36 69 53 • Faxe: 943 76 20 52
e-maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com

Erregistro industrial: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua

Argazkia: Martin Diez Zuruzuza



ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00

HILEKO 3. ZAPATUAN

maiatzak 15
ekainak 19
uztailak 17
irailak 18
urriak 16
azaroak 20

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.

Pazkoak 2010



Bergarako jaiak

ARGAZKILARIA JOSETXO ARANTZABAL

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA



BERGARA

Aurpegi eta gorputzeko laser depilazioa

Kontsulta eta proba

DOAN

**JAI
ZORIONTSUAK
BERGARAR
GUZTIO!**

Etorri eta ezagut itzazu gure eskaintza bereziak!



Bidekurutzeta 7, 1a · 943 76 31 71 · 20570 Bergara (Gipuzkoa) · www.lilura.com · lilura@lilura.com

ONDO IBILI JAIXETAN!



SYMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

**Ondo ibili
Pazkoetan!**

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

agurra



Agurne Barruso
Bergarako alkatea

Iritsi dira Pazkoak

Iritsi dira berriz ere Pazkoak eta honen erakusle esku artean daukazu gehigarria.

Lehenik eta behin, ongi etorri Bitorianatxori, Pazkoek gozatzea erabaki duzuen bergararroi eta kanpotik gure herrira egun hauetan hurbilduko zareten guztioi.

2009ko Pazkoetan argi eta garbi gelditu zen jaiak batez ere herritarrok egiten ditugula. Udalak antolatutako ekimenek lagundu egiten dute, baina ez dago jairik herritarrok parte hartzen ez badugu. Iazko programa azken urteetako aurrekontu txikienekoa izan zen, eta, hala ere, Pazkoak aspaldiko onenak.

Aurten ere esku artean daukazu programa hau udalok sufritzen dugun egoera ekonomiko eskasaren baldintzapean eginda dago. Gure eskerrik beroena Jai Batzordeari aurrekontu oso mugatuarekin programa oparora egiteko jarri duen imajinario, ilusio eta gogoarengatik.

Eskerrik asko Txosna Batzordeari aurten ere Txosnagunea den gune berezi hori antolatzeagatik eta edukiz eta ekimenek betetzeagatik.

Orain herritarroi dagokigu jaietako osagai nagusia jartzea. Blusak jantzi, kalera irten eta gozatu jaietz. Jaietan herriko kaleetan giro aparta egotea gure esku dago.

Atera ditzagun kalera gure aldarrikapenak, gure kantu eta dantzarako senak eta bete ditzagun herriko kaleak bost egunetan zehar musikaz, dantzaz, antzerkiz eta sekulako giroaz.

Errespetatu dezagun egun hauetan ere gure burua, gure ingurukoena eta ingurumena. Ez gaitzezen erori neurri eta zentzurik gabeko kontsumoan eta izan gaitzezen gure buruaren jabe. Horiek ere ezinbesteko elementuak dira jaiak onak izan daitezen.

Egun hauetan halaberharrez kanpoan egon behar duzuen bergararrak gogoan, gaixorik zaudeteno gure alaitasuna oheburura eramango dizuegun esperantzan eta hemendik urrun gaitibu zaudetenok bihotzean.

Izan ditzagula Pazko onak.

Jaietako egitaraua

Egubakoitza, 21

> **Ikasleen bazkaria**

Gaztetxean, 15:00etan. Gero, triki-poteoa egingo dute.

> **Federatuen pilota partiduak**

Pilotalekuan, 19:30ean.

> **Bitorianatxoren jaitsiera**

Jaiak hasiko dira, San Martin plazan, 20:00etan.

> **Musika bandaren kalejira**

San Martin plazan hasita.

> **Kataia taldearen kalejira**

San Martin plazatik, 20:15ean, txosnaguneraino.

> **'Xaxau' jaitsiko da**

Bideberrin, 20:30ean.

Segidan, txosnagunea irekiko dute gazteek.

> **Barrakak irekiko dituzte**

Iluntzean izango da, Matxiategin.

> **Kontzertuak gaztetxean**

Honako taldeen kontzertua: Dark Code, Childrain eta Legen Beltza, 22:00etan; bukaeran, DJ Lennymetal-ek metal estiloko musika ipiniko du.

> **Dantzaldia**

Tximeleta taldearekin, San Martin plazan, 22:30ean.

> **Kontzertuak**

Giza-proiektua, Klabo oxidado eta Emon taldeak txosnagunean, 22:30ean.

Zapatua, 22

> **Bigantxak zezen plazan**

09:00etan. Igandea txarangek animatuko du giroa.

> **30. Haur eta Gazteen Plastika sariketa**

Bergarako Arte Elkarteak, Beartek antolatuta. San Martin plazan, 10:00etan.

> **Diana**

10:00etan hasiko da. Oxiron don hasiko dira Ekaitz Otxoa eta Aitor Astorkia Bergarako trikitilariak; Labegaraietan, Udal Txistulari Banda; eta Bolun, Elgoibarko dultzaineroak. Herriko Plazan batuko dira denak, eta Mizpirualdeko nagusien egoitzara bisita egingo dute.

> **Herriko elkarten arteko Bakailao Lehiaketa**

San Martin plazan, 11:00etan. Sukaldariendako lapikoak eta amantalak Lacorrek emango ditu. Herritarrendako mokadua egongo da, etxe hauei eskerrak: Ogizun Okindegia, Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxega), Manso Hermanos SA, Txomin Zubeldia SA, eta Giokelako harakinak: Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Urtzelai anaiak.

> **Goitibehera lehiaketa**

San Martzialgo bidean, 12:00etan. Izena emateko, jo kultura etxera (943 77 91 81).

> **Plastika lehiaketako sari banaketa**

San Martin plazan, 13:30ean.

> **Bakailao lehiaketako sari banaketa**

San Martin plazan, 13:45ean.

> **Kantu bazkaria**

Txosnagunean izango da, 14:30ean.



Txarangek animatuko dituzte Bergarako kaleak.

ARTXIBOA

> **Erremontezko pilota partidu profesionala**

Pilotalekuan, 17:30ean.

> **Rock maratoia**

Simon Arrietan, Kruz Gallastegin eta Munibe plazan, 18:00etan.

> **Bonba japoniarrak**

San Martin plazan, 18:15ean.

> **Erraldoien konpartsaren kalejira**

San Martin plazan hasita, 18:30ean, honako ibilbidea egingo du: Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberrri, Fraiskozuri, Herri Lagunak, Domingo Irala, Barrenkale eta San Martin plaza.

> **Errekortadore txapelketa**

Seminarioko zezen-plazan, 18:30ean.

> **Erromeria Trikidantz taldearekin**

San Martin plazan, 20:00etan.

> **Kontzertuak**

Governors, Los Zopilotes Txirriaos (lehengo Impeccables) eta Turbo shit. Txosnagunean, 22:30ean.

> **Erromeria Trikidantz taldearekin**

San Martin plazan, 23:30ean.

Domeka, 23

> **Herri gosaria**

Txosnagunean, 07:30ean.

> **Alborada**

Udal Txistulari Bandak egingo du, 08:00etan.

> **Bigantxak**

Zezen plazan, 09:00etan.

> **75. Pentekosteetako Txirridulari Lasterketa**

Lehendakari txapelketarako puntuagarri da. San Antonio izango da irteera, 09:30ean. Lokatza Ziklismo Eskolak antolatzen du.

> **Banakako xake azkarreko txapelketa**

Agorrosinen, 10:00-14:00.

> **Futbolin, ping-pong, minigolf, billar eta Skalextric**

San Martin plazan, 10:30-14:00.

> **Umeendako jolasak**

Munibe plazan, 11:00etan.

> **Zaldia gertutik ezagutzeko aukera**

5 eta 12 urte arteko umeendako. Seminarioko zezen-plazan, 11:30-14:00.

> **Musika bandaren kontzertua**

Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduta. Espoloiak, 12:30ean. Egitaraua: *Campo de rosas* (pasodoblea; M. Gonzalez Bastida), *La belle Helene* (obertura; J. Offenbach), *Ezpata-dantza* (M. Gonzalez Bastida), *Jericho* (fantasia; B. Appermont), *Desafinado* (bossa nova; C. Jobim) eta *Bergarako ereserkia* (A. Gonzalez Chirlaque).

> **Bergarako Hiria taldeko xake txapelketa**

Agorrosinen, 16:00etan. Bergarako Xake Eskolak antolatuta du.

> **Eskuz banakako ligaxkako pilota partiduak**

Final laurdenak. Udal pilotalekuan, 17:00etan.



Bakailao lehiaketa egingo dute herriko elkarteek.

ARTXIBOA

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



Gorosabel
doktorea

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra

Orain, aurpegiaren estetika plasmarekin!

Aseguruak: PADI (Osakidetza), AEGON

20 urte zuekin Bergaran, eskerrik asko denoi!

Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

> Apar festa

Munibe plazan, 17:00etan.

> Baltsa jaitsiera

Ertzain etxeke zubian hasita, 17:30ean. Txosna batzordeak antolatutako ekintza da.

> 33. Euskadiko Dantza Askatuko txapelketa

16 urtetik beherako bikoteek jokatuko dute. San Martin plazan, 17:30ean. Abarka dantza elkarteak antolatu du, eta Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduko dute.

> Euskal Herriko errektadoreen ikuskizuna

Zezen-plazan izango da, zale guztiondako, 18:30ean. Pasai txarangak alaituko du giroa.

> Bertso emanaldia

Txosnagunean, 19:30ean.

> Kontzertua

Napoka Iria eta Patinazo de Neurona taldeek kontzertua egingo dute. Txosnagunean, 21:30ean.

> Erromeria

Luhartz erromeria taldeak girotutako dantzaldia izango da. San Martin plazan, 22:30ean.

Astelehena, 24, koadrilen eguna

> Koadrilen arteko herri kirolen txapelketa

Zezen-plazan izango da txapelketa, 11:30ean. Xapre eta Zarra trikitilariak eta Incansables txarangak alaituko dute giroa.

> Dantzaldia

Fabulosa orkestrarekin. Espoloian, 12:30ean.

> Herri bazkaria

Txarangak animatuko du giroa. San Martin plazan izango da, 14:30ean. Txartelak salgai daude honako leketan: kultur etxea eta Pol-Pol eta Ariznoa tabernak. 15 euro da; 10 urtetik beherako umeen kasuan, 10 euro. Eurria egiten badu, Labegaraietako kiroldegian izango da bazkaria. Incansables txarangak ipiniko du musika.

Segidan, koadrilen arteko jolasak izango dira, eta karaokea ere, DJ Angierekin.

> Errektadoreen eskola ibiltaria

Errektadoreen eskola ibiltaria, zezentxoekin, zaleendako. Zezen-plazan, 18:30ean.

> Incansables txarangaren kalejira

San Martin plazatik hasita, 19:00etan.

> Kontzertuak

Extorsion eta Xero Xete taldeak. Txosnagunean, 19:00etan.

> Bergara Hiria pilota finalak

Maila handiko partidua ikusteko aukera dute zaleek: Irujo eta Laskurain, Titin eta Pascualen aurka. Pilotalekuan, 19:30ean.

> Erromeria

Erdizka Lauetan taldearekin. San Martin plazan, 20:00etan.

> Kontzertuak

Latz eta Inger, lehenengo; Fiachras; eta, bukatzeko, Deskontrol. Txosnagunean, 22:30ean.

> Camp dantzaldia

Fabulosa taldearekin. Espoloian, 23:00etan.

> Dantzaldia

Amaiur taldearekin. San Martin plazan, 23:00etan.

> 05:00, txosnagunean

Karaokea, eta kulero eta galtzontzilo lasterketa.

Martitzena, 25, nagusien eta umeen eguna

> Bigantxak

Zezen-plazan, 09:00etan.

> Umeendako jolasparkea

Ipintza II-ko patioan, 11:00etatik 14:00etara. Auto



Errektadore ikuskizunak eta txapelketa egingo dituzte.

ARTXIBOA

txikiak, zezen mugikorak, goming...

> Herri kirolen erakustaldia

San Martin plazan, 12:00etan. Honako partaideekin: Ioritz Gisasola (Zelai III.a) eta Jon Gisasola (Zelai IV.a) eta Hodei Ezpeleta aizkolariak; eta Joseba Ostolatza, Ureta eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak. Aurkezlea da Ernesto Ezpeleta, *Bihurri*.

> Duo Plaentxi taldearen emanaldia

Duo Plaentxi taldea. Domingo Irala kalean, 12:30etik 14:00etara.

> Umeendako jolasparkea

Ipintza II-ko patioan, 16:30etik 19:30era.

> Eskuz banakako profesional mailako pilota partidua

Udal pilotalekuan, 17:00etan.

> Errektadore eskola

Zezentxoekin egingo dute. Zezen-plazan, 18:30ean.

Incansables txarangak giroa alaituko du.

> Debagoieneko V. Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpena

San Martin plazan, 18:30ean.

> Pintxo eta argazki lehiaketak

Txosnagunean, 18:30ean.

> Umeendako karaokea

Txatxilipurdi elkarteak antolatuta. 19:30etik 21:00etara.

> Lehiaketarako sari banaketak

Txosnagunean, 20:00etan.

> DJ festa

DJ Oihan Vegak ipiniko du musika. 22:30ean hasiko da emanaldia, gauerdia arte. San Martin plazan.

> Bitorianatxoren igoera

Jaiak bukatzeko. Incansables txarangak musika ipiniko du. San Martin plazan, gauerdian.

> DJ festa

DJ Oihan Vegaren eskutik. San Martin plazan, 00:30etik 02:00etara.



Irujo eta Laskurainek Titin eta Paskualen kontra jokatuko dute.

ARTXIBOA

I AM
TÚ ERES

هي ...

GU GARA

VOUS ÊTES

ELES SÃO

ONDO
PASAU
JAIXAK!

2010 -11 ikasturteko
aurrematrikula irekita

Udako ikastaroak 2010

Matrikula zabalik

ekainaren 14tik 25era
16 urtetik gorakoentzat

Zabalotegi 13• BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

HABEren dirulaguntzaz

www.udaleuskaltegiak.net

UDAL
USKALTEGIAK

EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

López Queda

Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

López Queda
Errioxako
ardo beltza, urtekoa



Errioxa



Nafarroa



Urtekoa
eta ondua

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

ATXEGA ARDOAK S.L.



BOLU SUKALDEAK

- >Gremioen koordinazioa
- >Aurrekontua konpromiso barik
- >Horma armairuak

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxe: 943 76 27 02.
bolusukaldeak@euskalnet.net
www.euskalnet.net/bolusukaldeak



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Ondo
pasau
jaixak!

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16

Faxe: 943 76 09 32

Antonio Irazola > Txupinazoa jaurtiko duena

"Pozik hartu dut albisteak, baina merezi ez dudana lana da"

NEREA MENOR > BERGARA

Orain arte alkateak jaurti du beti jaiei hasiera ematen dien txupinazoa. Urte honetatik aurrera, baina, ohitura aldatu eta urtero herriko pertsona ezberdin batek botako du. Jardun horretan lehenengoa izango da Antonio Irazola.

Txupinazoa botako duzu aurtentzen. Pozik zaude?

Bai, pozik hartu nuen albisteak, baina merezi ez dudana lan bat eman didatela uste dut. Nire moduko jende asko dago duela 40 urte-eta udaletxean lanean aritu zena, eta, bueno, eurek merezi dute. Guri egokitu zitzaigun garai haiek bizi izatea eta horrela jardutea.

Zinegotzi izan zara 11 urtean zehar.

Bai, lehenengo Luis Laskurainen eta gero Jose Luis Elkororen gobernuan egon nintzen Udalean. Hasieran, ezin genuen ia berbarik egin ere, baina gero hasi ginen, bai, *gerria* ematen, pilotalekuaren subasta zela-eta. Gehiengoa ere lortu genuen 1974-1975 urte inguruan. Urte luzeak izan ziren haiek.

Zuk jarri zenuen ikurrina lehenengoz udaletxean, ezta?

Poz handiko momentua izan zen hura. Azkeneko momentura arte ez nuen jakin nik ipiniko nuen ikurrina. Garai hartan Elkororen alkate eta hark esan zidan berari baino gehiago zegokidala niri ipintzea. Plaza jendez gainetza zegoen, baita udaletxea ere. Jarri osteko txalok ez zuten akaberarik.

Nola bizi zenituen jaiak garai haietan?

Zirkua ikustera joaten nintzen, eta koadrilarekin pilota partiduak ikustera. Onenetarikoak etortzen ziren Bergarara! Ez nintzen oso parrandazalea. Zortea izan nuen, gaztetan topatu nuen eta amaztea.

Zer egingo duzu aurtengo Mendekosteetan?

Orain ez daukat lehengo sasoirik eta gutxi irteten naiz. Buelatxo bat emango dut, noski. Herri kirolak ikustera joango naiz goizetan, giroa ikustera. Pilota partiduak gustuko ditut, eta Irujoarena telebistan ziur ikusiko dudala, edo, akaso, pilotalekuan.



Antonio Irazola, Bergarako udaletxeko bakoian.

N.M.

BIOGRAFIA


"Ikurrina ipintzea poz handiko momentua izan zen; jarri osteko txalok ez zuten akaberarik"

"Hasieran ezin genuen ia berbarik egin ere, baina gero hasi ginen bai 'gerria' ematen Udalean"

11 urtez zinegotzi Bergarako Udalean

Aritzetako San Migel auzoko Sagastizabal baserrian jaio zen Antonio Irazola Altuna, 1924an. Aita eta ama bergararrak zituen.

Lehenengo ikasketak herriko eskolan egin zituen eta, gero, Errege Mintegian jarraitu zuen ikasten. Diktadura garaia bizi izan zuen eta ondo gogoratzen ditu orduko gertaerak. Gaztetatik langile mugimenduan aritu zen. 11 urte eman zituen zinegotzi Bergarako Udalean, Laskurain eta Elkororen alkateen gobernuetan. Irazola izan zen lehenengoz ikurrina jarri zuena udaletxeko bakoian, eta poz handiz gogoratzen du une hura.



IGARZA

Domingo Irala, 5
BERGARA
Tel.: 943 76 24 88

Jai zoriontsuak igaro!

ETXEBERRIA
BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Jai zoriontsuak bergarar guztioi!



CITIZEN
Eco-Drive

Eco-Drive mugimendua (argi karga infinitua)
150 egunerako karga erreserbarekin

Bidekurutzeta 16 BERGARA

Tel.: 943 76 23 94


Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San Juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04




- Proiektuak
- Koltxoiak
- Horma-armairuak
- Altzariak neurrira



- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean

Zorionak,
bergarar
guztioi!



www.euskoalkartasuna.org

**Mendekoste
jai zoriontsuak
herritar guztioi!**

KOADRILEN EGUNA > HERRI BAZKARIA

Azken urteotako toki faltari aurre egiteko, 700 txartel

Urtetik urtera gero eta bergarar gehiago joaten da Pazkoetako astelehenean egiten den bazkaria

Eguraldiak laguntzen badu, San Martin plazan izango da; bestela, Labegaraietako kiroldegian

MIRIAN BITERI > BERGARA

Pazkoetako asteleheneko Koadrilen Eguneko herri bazkariako inoiz baino txartel gehiago jarri dira aurten salgai. Joan den urtean baino 200 gehiago: 700, hain justu ere. Bergarako Kultura teknikari Edurne Kortak gogorazi du urtetik urtera gero eta jende gehiagok ematen duela izena ekimen horretan, eta, hortaz, azken urteotan leku falta dela eta bergarar asko geratu dela txartel barik. Horrek, baina, ez du esan nahi jendea bazkaria joan barik geratu zela, etxetik mahaia, aulkiak eta jana hartu eta plazan ederto bazkaldu zuten-eta.

Aurtengo bazkarirako txartelak erosteko epea amaitu dela gogoratzearekin batera, Kortak Pazkoetako astelehenean San Martin plazan bazkalduko dutenen menuaren berri eman digu: errioxar erara gertatutako pata-

tak, okela gisatua, etxeko hostopila eta kafea hartuko dute bergararrek egun horretan. Menu bera izango dute helduek eta etxeko txikieneek; ez da bereizketarik egongo.

ZERBITZARIEKIN

Horren harira, aipatu digu ez dela errepikatuko joan den urtean San Martin plazan jendaurrean prestatutako 500 lagunendako paella erraldoia. Horixe izan zuten zuten bazkarian parte hartu zutenek. Bakoitzak zerbitzatu behar izanak ez zuen oso harrera ona izan. Kortaren arabera, "jendea gutxi mugitu zen eta bazkaria, gainera, nahi baino gehiago luzatu zen. Horrenbeste jenderendako, ez da oso praktikoa". Hori dela-eta, aurten catering enpresa bat kontratatu dute eta horko zerbitzariak arduratuko dira platerak mahai gaineratzeaz.



Herri bazkarirako txartel barik geratu zen jende asko joan den urtean.

GOIENKARIA

LABEGARAIETARA

Eguraldia ere kontuan hartu dute antolatzaileek. Denon buruan dago oraindik joan den urteko Pazkoetako astelehenean egin zuten egun bero eta eguzkitsua.

Aurtengoa ere antzekoa izango dela espero badute ere, badaezpada 700 lagun hartzeko gai den toki alternatiboa topatu nahi izan dute. Hala, euria eginez gero, Labegaraietako kiroldegian egin-

go dute lehenengo aldiz herri bazkaria. Horren harira, Kultura teknikariak nabarmendu nahi izan du Labegaraietara joan ahal izateko autobus zerbitzua eskainiko dela.

DATUA

200

TXARTEL GEHIAGO

Herri bazkariak izaten duen arrakasta kontuan hartuta, txartel gehiago saltzea erabaki du aurten Udalak. Joan den urteko 500etik 700 txartel saltzera pasa dira aurten.

BAZKALONDOA

Koadrilen arteko jolasak eta karaokea

Bazkaria hasi aurretik koadrilek jai giroan murgiltzeko aukera izango dute, 12:30ean Espaloian hasiko den dantzaldiarekin. Musika ondoan izaten jarraituko dute bazkaltzeko orduan ere, txaranga batek animatuko du-eta San Martin plaza. Bazkalondoan bergararrek ez dute lo geratzeko denborarik izango, koadrilen arteko jolasak egingo dituzte-eta. Horrez gain, agertoki gainean, mikrofonoa esku artean edukita, banaka edo taldeka abesteko abilezia erakutsi ahal izango dute bazkarian parte hartzen dutenek. Karaokea izango da, Angie disko jartzailearen eskutik.



Ferreteria
Múgica
Burdindegia

INDUSTRIA
HORNIDURAK

Eskaintza bereziak:
LORATEGIA - PROFESIONALA - UDA

Bidekurutzeta 8 • BERGARA • Tel.: 943 76 28 67 • Faxe: 943 76 94 31



Pazkoa jai zoriontsuak

08:30 - 20:30
eguerdian zabalik!

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92



Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABAETA • ARRASATE
1950•2010

60 urte

Zorionak,
bergarar guztioi!

"ideia guztiak, proiektu guztiak,
pertsona guztiak"

ondo pasau jaixak.

bergarako

aralar

www.aralar.net

Iñigo Almortza > Errekortadoreen eskolaren bultzatzailea

"Aurten, errektadore txapelketa egingo dugu mutikoendako"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako errektadore eskolaren ibilbideaz eta Pazkoetan egongo diren berrikuntzen gainean hitz egin digu datozen lerrootan eskolaren bultzatzaile Iñigo Almortzak; azken horren harira, aipatu digu aurten, lehen aldiz, 16 urtetik beherakoendako txapelketa egingo dutela.

Noiz sortu zen Bergaran errektadoreen eskola?

Bergarako errektadoreen taldea orain dela zortzi bat urte eratu zen; horretan toki guztietako jendea zegoenez, Euskal Herriko Errekortadoreen Taldea izena jarri genion. Ikuskizunen ikusle zati handi bat mutikoak zirela ikusita, haiendako eskola bat sortzea erabaki genuen orain dela hiru urte. 2007an sortu genuen Bergaran, eta jarraian, horretarako espresuki eraturako ganadutegi bat, Bergarako Zezenak deitzen dena.

Herri askotatik deitzen digute ikuskizunak egin ditzagun. Adibide bat jartzearen: maiatzaren hasieran, Txitxarro dantzalekuan izan ginen. Zezenekin lotutako jolasez gain, herri kirolekin uztartutako jokoak ere eskaintzen ditugu.

Zer erakusten diezue mutikoei?

Zezenen aurrean zelan babesu behar duten, eta errektoreak

eta saltoak nola egin ere. Lehenengo, gezurrezko zezenekin egiten dugu, eta gero, benetakoekin. Finean, minik hartu barik nola gozatu erakutsi nahi diegu. Hori bai, beti ganadua errespetatuz.

Errekortadore eskolan bergararrak dira guztiak?

Ez. Ingurunean mugitzen garen, bereziki Arrasateko eta Bergarako jendea dago. Azken horien artean, Txili, Unai Arana, Blas Kruz, Felipe Gascon eta ni neu ibiltzen gara. Bergarako beste mutiko askok ere laguntzen digute, zaletasun handia dagoelako.

Debagoienean badago beste-lako eskolarik?

Ez Debagoienean, ezta beste inon ere. Orain hasi dira sortzen. Espainiarekin alderatuta, Euskal Herrian daukagun abantaila

"Aurten, lehen aldiz, bigantxak egongo dira zapatuan, 09:00etan, zezen-plazan"

"Desagertu egin behar zen koadrilen arteko herri kirolen txapelketa hartu dugu"

da lagatzen digutela 16 urtetik beherako umeendako ikuskizunak egiten. Beste hainbat tokitan gezurrezko zezenekin egiten dituzte; guk, berriz, benetakoekin.

Nondik dator Bergaran dagoen zaletasuna?

Euskal Herrian beti gustatu izan den mundua da. Gainera, gainerako kirolekin moduan, herrian ona den norbait baldin badago zaletasuna dago. Bergaran, esaterako, hor dago Aitor Zabaleta auto gidaria. Guk zezen mundua pizteko elkarte sortu genuen lehenengo, eta gero errektadoreen munduan sartu ginen, Tolosako Elozegi familiarri esker. Talde bikaina egin genuen eta Euskal Herrian eta Espainian toki askotara joaten gara, maila ona erakusten dugu txapelketetan eta ikuskizunetan.

Amaitu aurretik, zer eskainiko duzue aurtengo jaietan?

Errekortadore eskolan ez da berrikuntzarik egongo. Dena dela, urtero duen arrakasta ikusita, orain arte egin izan ez dena egingo dugu aurten: errektadore txapelketa 16 urtetik beherako umeendako. 10 mutikok eman dute izena, ez ditugu gehiago sartzen; besteak beste, Irun, Tolosa, Soraluze, Azkoitia eta Bergarako jendea egongo da. Txa-



Iñigo Almortza bergararra.

MIRIAN BITERI

pelketa hori zapatuan izango da, seminarioko zezen-plazan, 18:30ean. Joan den urtetik gordeta dauzkagun hiru zezentxo botako ditugu horretan. Mutikoei zelan erantzun dugun ez dakigu, presio handia izango dutelako; baina arrakastatsua izango dela uste dugu.

Aurten, gainera, lehen aldiz, bigantxak egongo dira zapatuan, 09:00etan, zezen-plazan. Bestalde, desagertu egin behar zen koadrilen arteko herri kirolen txapelketa hartu dugu. Astelehen goizean izango da hori, zezen-plazan. Herri kirolen gaineko joko horietan bigantxak ere egongo dira.



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Ondo ibili jaietan!

Barrenkale 44 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Tel. / Faxes: 943 76 24 89 • Mugikorra: 607 76 24 89 - 610 20 54 99



Iratxo mertzeria

Telesforo Aranzadi 3B

Tel.: 943 76 00 79

BERGARA

Ondo pasau Pazkoetan!





*Udaberria - uda
Neurriak
38tik 60ra*

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

*Jai zoriontsuak
guztioi!*



Saunier Duval

Dicomman

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorenzo 21

20570 Bergara

Tel.: 943 76 06 61

www.dicomman.com

[dicomanbergara@dicoman.com](mailto:dicommanbergara@dicoman.com)

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



